• Ayuda a reducir la presión frente a otros servicios que resultan más costosos para la Administración Pública, como es el caso de los servicios de las residencias, que cuentan con graves problemas en las listas de espera.

• Y, lo más importante, funciona como vía de acceso a los servicios sociales, ya que contribuye a detectar otros problemas y otras problemáticas.

2005ean Foru Aldundiak lankidetza hitzarmenak sinatu zituen lurraldeko udalekin ELZren eskuordetze eta kudeaketa mandatuak bideratzeko mendekotasun egoeran zeuden pertsonei zerbitzua eskaintzeko, Eusko Jaurlaritzaren 155/2001 dekretuak ezarritako eskumen banaketaren arabera (mendekoak aldundientzat, autonomoak udalentzat).

En 2005, la Diputación Foral firmó convenios de colaboración con varios ayuntamientos del territorio para tramitar las delegaciones y los mandatos de gestión del SAD para dar servicio a personas en situación de dependencia, según la distribución competencial establecida por el Decreto 155/2001 del Gobierno Vasco (dependientes para las diputaciones, autónomos para los municipios).

Beraz, orain arte, zerbitzua udal araudien bidez antolatu eta arautu bada ere, Foru Aldundiak finantzaketaren zatirik handiena bermatu izan du, zehazki % 70. Ondorioz, esan genezake ELZ hainbat administraziok parte hartzen duten gizarte baliabide garrantzitsu bat dela.

Por lo tanto, a pesar de que hasta la fecha el servicio se ha organizado y regulado mediante normativas municipales, la Diputación Foral ha garantizado gran parte de la financiación, un 70 %, para ser exactos. Por lo tanto, podríamos decir que el SAD es un importante recurso social en el que participan varias administraciones.

Esate baterako, Donostiaren kasuan, 2016ko datuen arabera, zerbitzuak 8.387.836,53 euroko kostua izan zuen. Aurrekontu horretatik % 47 Foru Aldundiak jarri zuen, % 39 Udalak eta % 14 erabiltzaileek beraiek.

Por ejemplo, en el caso de San Sebastián, y según datos de 2016, el servicio tuvo un coste de 8.258.802,37 euros. El 50 % de ese presupuesto fue aportado por la Diputación Foral, el 39 % por el Ayuntamiento y el restante 14 % por las personas usuarias del servicio.

12/2008 Gizarte Zerbitzuen Legeak 155/2001 dekretuak ezarritako eskumen banaketa aldatu egin zuen. Horrela, 22. artikuluan Lehen Mailako Arreta Zerbitzutzat jotzen da ELZ eta,

La Ley 12/2008, de Servicios Sociales, modificó la distribución competencial establecida por el Decreto 155/2001. Así, según su artículo nº 22, el SAD está incluido entre los Servicios de Atención

aldi berean, 27. artikuluan ezartzen da Lehen Mailako Arretako zerbitzu horiek udalei dagokiela eskaintzea eta betetzea, telelaguntza zerbitzua izan ezik.

Primaria y, a su vez, el artículo nº 27 establece que, excepto el servicio de teleasistencia, corresponde a los ayuntamientos ofertar y proporcionar esos servicios de Atención Primaria.

Eskumen banaketa hori gauzatzeko epeari dagokionez, legearen bigarren xedapen iragankorrak urtebeteko epea ezartzen du. Hala ere, hirugarren xedapen iragankorrak beste bi betebehar ezartzen ditu: batetik, eskumen banaketaren ondorioz beharrezko finantza doiketa egitea herri-administrazioen artean “finantzaketa nahikorik bermatzeko”, eta, bestetik, eskumen banaketa eta finantza doiketa berriak ezin duela ekarri zerbitzuaren intentsitatea eta estaldura jaistea.

En cuanto al plazo para hacer efectiva tal distribución competencial, la disposición transitoria segunda de la Ley establece un plazo de un año. No obstante, la disposición transitoria tercera establece otras dos obligaciones: por un lado que, como consecuencia de la distribución competencial, se realizará el correspondiente reajuste financiero entre las administraciones públicas vascas, con el “fin de garantizar la suficiencia financiera”, y por otro lado, que la redistribución competencial y dicho reajuste financiero en ningún caso podrán suponer una disminución en los niveles de intensidad y cobertura de las prestaciones y servicios.

2016ko apirilaren 7an Eusko Legebiltzarrak Toki Erakundeei buruzko 2/2016 legea onartu zuen. Udal Lege berrian etengabe honako kezka hau agertzen da: udalei eskumenen bat esleitzen edo transferitzen bazaie, eskumen hori benetan egikaritu ahal izateko beharrezkoa den finantzaketarekin joan beharko dela.

El 7 de abril de 2016 el Parlamento Vasco aprobó la Ley 2/2016 sobre Instituciones Locales. En la nueva Ley Municipal surge constantemente la siguiente preocupación: si a los ayuntamientos se les asigna o transfiere alguna competencia, para poder ejecutar esa competencia realmente, habrá de ir acompañada de la financiación necesaria.

Ondorioz, argi geratzen da ELZ, legezko eskumenei dagokienez, udal zerbitzua izan arren, ezin zaiela udalei transferitu, zerbitzua bermatzeak eskatzen duen finantzaketa doiketaren inguruan adostasunik egon gabe.

En consecuencia, queda claro que el SAD, a pesar de ser un servicio municipal en lo relativo a las competencias legales, no se puede transferir a los ayuntamientos sin el correspondiente ajuste financiero que exige garantizar dicho servicio.

Bestetik, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren eboluzioari erreparatzen badiogu, datuek erakusten digute zerbitzua gainbehera doala, poliki-poliki, baina etengabe. Ikus dezagun Gipuzkoako udalek eskainitako ordu kopurua (mendekoak eta autonomoak batera) azken bost urteetan:

Por otra parte, si nos fijamos en la evolución del Servicio de Ayuda a Domicilio, los datos nos muestran que el servicio está decayendo, poco a poco, pero ininterrumpidamente. Veamos el número de horas (suma de personas dependientes y autónomas) ofrecidas por los ayuntamientos de Gipuzkoa en los últimos cinco años:

| 2012 | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 |
|---|---|---|---|---|
| 1.259.041 | 1.216.426 | 1.195.103 | 1.170.996 | 1.148.264 |

Epe horretan eskainitako ordu kopuruen galera % 8,8koa izan da. Datuek erakusten digute gainbehera mendekotasunean dagoela, azken bost urteotan orduen galera % 13koa izan baita, autonomoen kasuan, berriz, igoera % 7,5koa izan den bitartean.

La pérdida del número de horas en ese plazo ha sido del 8,8 %. Los datos nos muestran que el declive está en las personas dependientes, ya que en los últimos cinco años el descenso ha sido del 13 %, mientras que en el caso de las personas autónomas el aumento ha sido del 7,5 %.

Gainbehera hau ikusita, aurreko legegintzaldian ELZ zerbitzuari prezio publikoa egokitzea erabaki zen lehenengo aldiz eta legegintzaldi honetan prezio publiko hori gehiago jaisteko EH Bilduk aurkeztutako kontrol mozioa onartu zen. Hori dela eta, ELZ zerbitzuko orduak mantendu dira Donostiaren kasuan. Bestetik, zerbitzua beste kolektibo batzuei ireki zaie, adineko pertsonetara mugatu gabe.

Viendo ese declive, en la legislatura anterior se decidió por primera vez adaptar el precio público al SAD, y esta legislatura se ha aprobado la moción de control de EH Bildu para bajar más ese precio público. Debido a ello, en el caso de San Sebastián se han mantenido las horas de SAD. Por otra parte, se ha abierto el servicio a otros colectivos, sin restringirlo a personas de edad.

Zerbitzua sendotzea ezinbestekoa dela uste dugu eta finantziazioaren auziak kezkatu egiten gaitu. Horregatik, apirileko batzordeetan zinegotzi-ordezkariari galdetu genion gaiaren inguruan eta haren erantzuna izan zen Udal Gobernuak apustua egiten duela adineko pertsonak etxeetan mantentzearen alde eta, hortaz, zerbitzua bere horretan mantenduko duela.

Creemos que es imprescindible fortalecer el servicio, y nos preocupa el problema de la financiación. Por ello, en las comisiones de abril preguntamos al concejal delegado en torno al tema, y nos respondió que el Gobierno Municipal apuesta por que las personas mayores permanezcan en casa y que, por tanto, mantendrá el servicio como está.

Martxoan, ordea, Foru Aldundian egindako bilera batean, foru gobernuak aipatu du apiriletik aurrera udalekin dauden hitzarmenak eteteko arriskua dagoela eta honen aurrean Udal Gobernuak hainbat konpromiso hartu behar dituela uste dugu.

Sin embargo, en una reunión llevada a cabo en la Diputación foral en marzo, el gobierno foral mencionó que existe el riesgo de suspender los convenios con los ayuntamientos a partir de abril, y nos parece que ante ello el Gobierno Municipal debe asumir determinados compromisos.

Azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako KONTROL MOZIO hau aurkezten du:

Teniendo en cuenta la situación expuesta, la concejala abajo firmante presenta esta MOCIÓN DE CONTROL

1. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari, ELZ pertsonaren zaintzarako

1. El Pleno insta al Gobierno Municipal a que, teniendo en cuenta que el SAD es un servicio

ezinbesteko zerbitzua dela kontuan izanda, zerbitzua hobetzeko eta zabaltzeko neurriak aztertu eta ezartzeko konpromisoa; halaber, langileei lan baldintza duinak bermatzekoa.

2. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari Foru Aldundiak Udalarekin duen hitzarmena bertan behera gelditzen bada, zerbitzuaren finantziazioa bere horretan manten dezala, murrizketarik egin gabe.

Donostian, 2017ko ekainaren 22an

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

imprescindible para el cuidado de las personas, se comprometa a examinar e implementar medidas para mejorar y ampliar el servicio, así como a garantizar condiciones de trabajo dignas al personal que trabaja en ese servicio.

2. El Pleno insta al Gobierno Municipal a que, si se suspende el convenio que la Diputación Foral tiene con el Ayuntamiento, mantenga el servicio como está en la actualidad, sin recorte alguno.

San Sebastián, a 22 de junio de 2017

Olaia Duarte López
concejala del grupo municipal EH Bildu".

Eztabaida hasita, Olaia Duarte Lopez andreak, Amaia Martin Garin andreak, Aitziber San Roman Abete andreak eta Alfonso Gurpegui Ruiz jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as Dª. Olaia Duarte López, Dª. Amaia Martín Garín, Dª. Aitziber San Román Abete y D. Alfonso Gurpegui Ruiz, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 3 – PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 3 – PP.**

---------------

**II.2.2.13. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, Donostiako ikastetxeak hobetzeko Eusko Jaurlaritzarekiko hitzarmena dela eta.**

**II.2.2.13. Moción de control que presenta el Grupo EH BILDU sobre la elaboración del convenio con el Gobierno Vasco para la**

**mejora de los colegios de San Sebastián.**

“Naiara Sampedro Perez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2017ko ekainaren 19an Pertsonen Zerbitzu Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

“Naiara Sampedro Pérez, concejala del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción, para su tratamiento en el Pleno, como consecuencia de la interpelación substanciada ante la Comisión de Servicios a las Personas que se celebró el 19 de junio de 2017.

JUSTIFIKAZIOA

Maiatzaren 24ko hauteskundeen ondoren, PNV eta PSE-EEk Udal Gobernua osatu zuten Donostian eta beste era batera gobernatzeko konpromisoa aldarrikatu zuten: gardenago, irekiago, dinamikoago eta eraginkorrago.

Zentzu horretan, gobernu programan jasotzen da, Donostia hiri hezitzailea izateko asmoz, Udal-gobernuak hitzarmen bat sinatuko zuela Eusko Jaurlaritzarekin ikastetxeak hobetzeko, obren programa diruz laguntzeko, egonkortzeko eta behar bezala kudeatzeko eskolako instalazioak eta horien mantentze-lanak.

Honez gero, legegintzaldiko bi urte igaro dira eta Donostiako ikastetxeen instalazioak hobetzeko hitzarmenik ez da gauzatu. Hezkuntza jarduera jasotzen duten udal eraikinen egoeraren inguruko txostenik ere ez zaigu aurkeztu udal taldeoi. Batzordeetan, zinegotzi-ordezkariak ez zuen gai honen inguruan argibide handirik eman. Beraz, gardentasun gutxi eta are dinamismo eta eraginkortasun gutxiago.

Horiek horrela, hauxe da behean sinatzen duen

JUSTIFICACIÓN

Tras las elecciones del 24 de mayo, PNV y PSE-EE constituyeron el Gobierno Municipal de Donostia y proclamaron su compromiso de cambiar el modo de gobernar el Ayuntamiento de San Sebastián, para que fuera más transparente, abierto, dinámico y eficaz.

En este sentido, el programa de gobierno suscrito por ambos partidos recoge que, en aras a que Donostia sea una ciudad educadora, el gobierno municipal firmará un convenio con el Gobierno Vasco para la mejora de los centros educativos, subvencionando el programa de obras para afianzar y gestionar de manera adecuada las instalaciones de los centros educativos y sus labores de mantenimiento.

Han transcurrido ya dos años de legislatura y el convenio para la mejora de las instalaciones de los centros educativos de Donostia no ha sido elaborado aún. Asimismo, no se ha presentado a los grupos municipales ningún informe sobre la situación de los edificios municipales destinados a usos educativos. La concejala delegada del área no ofreció muchas explicaciones sobre ello en la comisión en la que se hablo de este tema. Por tanto, apreciamos poca transparencia y todavía menos dinamismo y eficacia.

Es por ello por lo que la concejala que suscribe

zinegotziak aurkeztutako

KONTROL MOZIOA:

1.-Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal-gobernuari Udalbatza osatzen dugun taldeoi aurkez diezagula, eta gurekin konpartitu dezala, hezkuntza jarduera jasotzen duten udal eraikinen inguruko txostena.

2.-Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal-gobernuari udal eraikinen inguruko txostena hezkuntza jarduera jasotzen duten eraikinen erabilera egiten duten eskola eta eragileekin konpartitzeko.

3.-Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal-gobernuari Donostiako ikastetxeak hobetzeko Eusko Jaurlaritzarekin landu beharreko hitzarmena Udalbatza osatzen dugun taldeekin kontrastatu eta, ahalik eta adostasun zabalena lortuta, negoziazioa abia dezala, hartan oinarrituta, Jaurlaritzarekin.

Donostian, 2017ko ekainaren 22an

Naiara Sampedro Perez
EHBilduko Zinegotzia”

presenta la siguiente

MOCIÓN DE CONTROL:

1.- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a que presente a todos los grupos que formos la corporación municipal, y que comparta con nosotras, el informe referente a los edificios municipales destinados a usos educativos.

2.- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a que comparta dicho informe con aquellos centros y agentes que hacen uso de estos edificios municipales destinados a usos educativos.

3.- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a que contraste con los grupos que forman la corporación municipal el convenio a elaborar con el Gobierno Vasco para la mejora de los centros educativos, y tras recabar el mayor consenso posible, aborde su negociación con el Gobierno en base a él.

En Donostia, a 22 de junio de 2017.

Naiara Sampedro Pérez,
concejala de EH Bildu”

Eztabaida hasita, Naiara Sampedro Perez andreak, Amaia Martin Garin andreak, Maria Luisa Garcia Gurruchaga andreak, Miren Azkarate Villar andreak eta Jose Luis Arrue Pinto jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as Dª. Naiara Sampedro Perez, Dª. Amaia Martín Garín, Dª. María Luisa García Gurruchaga, Dª. Miren Azkarate Villar y D. Jose Luis Arrúe Pintó, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**

**ALDEKO BOTOAK: 6 – (4) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 3 – PP.**

**VOTOS A FAVOR: 6 – (4) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 3 – PP.**

--------------

**II.2.2.14. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, Amara Berriko merkataritza plangintzari buruzkoa.**

“Josu Mirena Ruiz Martinek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikuluak ematen dion aukera baliatuz, Amara Berriko merkataritza plangintzaren inguruko MOZIO hau aurkezten du, Osoko Bilkuran azter dadin. Mozio hau Pertsonen Batzordean 2017ko ekainaren 19ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2014ko abuztuaren 1ean, Merkataritza eta Turismo sailburuordeak argitaratuko ebazpenaren bidez, Donostiako merkataritzaren lankidetza, dinamizazio eta lehiakortasun arloko estrategia zonalak bultzatzera zuzendutako laguntzen deialdia argitaratu zen.

Donostiako Udalari dagokionez, zuzkidura ekonomikoa 51.750 eurokoa da. Deialdiaren barnean Donostiako Udalak egin beharreko esparru-akordioan honako jarduera hauek aurreikusi ziren, besteak beste: Eremu komertzialak definitzeko azterketa. 6.1d) art. ...Amara Berrirako eremu komertzialak egituratzeko eta identifikatzeko azterketa. 2015ko otsailean Amara Berriko diagnostikoa

**II.2.2.14. Moción de control que presenta el Grupo EH BILDU sobre la planificación del comercio en Amara Berri.**

“Josu Mirena Ruiz Martin, concejal del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, somete a la consideración del Pleno la siguiente MOCIÓN, sobre la planificación del comercio de Amara Berri. Esta moción es consecuencia de la interpelación substanciada en la reunión del 19 de junio del 2017 en la Comisión de Servicios a las Personas.

JUSTIFICACIÓN

El 1 de agosto de 2014, mediante una resolución de la Viceconsejería de Comercio y Turismo, se hizo pública la convocatoria de concesión de ayudas del programa destinado a incentivar las estrategias zonales de cooperación, dinamización y competitividad comercial urbana.

Al Ayuntamiento de San Sebastián se le asignó una dotación económica de 51.750 euros para ello. El acuerdo marco que se alcanzó con el Ayuntamiento de San Sebastián, dentro de la convocatoria de ayudas, preveía las siguientes actuaciones: Estudio de definición de los modelos comerciales. Artículo 6.1d) ... Estudio para la estructuración e identificación de los modelos

eginda zegoen, eta plangintza nahiko aurreratuta utzi zuen maiatzerako aurreko Udal Gobernuak.

comerciales para Egia y Amara Berri. Para enero de 2015 ya se había realizado el diagnóstico de ambas zonas, y, en cuanto al plan, el gobierno municipal lo dejó en un estado bastante avanzado para mayo.

Bi urte hauetan Udal Gobernuak Garberaren zabalkundea onartzeko prozesua abian jarri du eta Ilunbe eremuaren esleipena ere egin da. Horrek guztiak auzoetako merkataritzan izan dezakeen eragina aztertzea eskatu genuen, txosten baten bitartez, baina Udal Gobernuak ez du egin nahi, eta ez omen du egingo.

En estos dos años, el Gobierno Municipal ha puesto en marcha el proceso de aprobación de la ampliación de Garbera y también ha llevado a cabo la adjudicación del complejo de Illumbe. Nuestro grupo solicitó que se estudiara, mediante la elaboración de un informe, la incidencia que todo ello puede tener en el comercio de los barrios de la ciudad, pero el Gobierno Municipal no tiene intención de hacerlo, y, según ha manifestado, no lo va a hacer.

Egoera zail honetan Amara Berriko dendariak oso kezkatuta daude. Eta kezka hori handitzen ari da. Auzoan merkataritza dinamizatzeko ezer ez da egiten ari, eta, adibidez, diseinatzaile berriak Garberara eraman direla ikusten ari dira. Finean, merkataritza gune handien presioaren aurrean merkataritza txikiak lehiakorra izan behar du. Hau da, merkatu berean aritzen diren bi aktore daude, gune handiak eta auzoetako dendak, eta elkarren artean lehiatzen ari dira. Lehia honetan Udal Gobernuak aukeratu behar du zeinen alde egiten duen, merkataritza gune handien alde ala auzoetako denden alde, eta orain artekoa ikusita (Garberaren zabalkundea...), argi dago lehenengoen alde ari dela.

Ante esta difícil situación, los y las comerciantes de Amara Berri están muy preocupados. Y su inquietud va en aumento. No se está haciendo nada para dinamizar el comercio en el barrio, y los y las comerciantes están viendo, entre otras cuestiones, que los nuevos diseñadores y las nuevas diseñadoras se han ubicado en Garbera. Ante la presión de los grandes centros comerciales, el pequeño comercio tiene que ser competitivo. Es decir, existen dos actores que operan en el mismo mercado: las grandes superficies y las tiendas de barrio; y, por lo tanto, están compitiendo entre sí. En esta competencia, el Gobierno Municipal debe elegir por cuál de los dos apuesta, o por los grandes centros comerciales o por los comercios de barrio, y, teniendo en cuenta las gestiones que ha realizado hasta ahora (ampliación de Garbera...), está claro que está trabajando a favor de los primeros.

Testuinguru honetan, Amara Berriko merkataritza sustatzeko plangintza ez da inplementatzen ari, eta hori onartezina da. Gai

En este contexto, no se está implementado el plan de estímulo del comercio de Amara Berri, y eso es inaceptable. Aunque hemos

honen inguruan, eta honako hau kontuan hartuta, zazpi iniziatiba aurkeztu ditugu, baina zinegotzi ordezkariak jakin dezala plangintza burutu arte ez dugula etsiko.

Batzordean delegatuak Antso Jakitunaren kaleari buruz jardun zuen, baina Pio XII.etik Anoetaraino dagoen eremuari buruz etorkizuneko apusturik ez zuen aipatu.

Hori dela-eta. Hauxe da behean sinatzen duen aurkeztutako

MOZIOA

1-Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari lehenbailehen Amara Berriko merkataritza plana inplementa dezala eskatzen dio.

2- Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio disenatzaile berriak Amara Berrira eramateko aukera azter dezala, bertako merkataritza dinamizatzeko asmoz.

Donostian, 2017ko ekainaren 22an

Josu Mirena Ruiz Martin
Donostiako EH Bilduko zinegotzia"

presentado ya siete iniciativas, incluida la presente, sobre esta cuestión, queremos hacer saber al concejal delegado que no desistiremos hasta que la planificación se lleve a cabo.

En comisión, el delegado dio explicaciones sobre la Avenida de Sancho el Sabio, pero no mencionó ninguna apuesta de futuro para la zona comprendida entre Pio XII y Anoeta.

Es por ello por lo que el concejal que suscribe presenta la siguiente

MOCIÓN

1.-El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián solicita al Gobierno Municipal que implemente cuanto antes el plan de comercio para Amara Berri.

2.-El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián solicita al Gobierno Municipal que estudie la opción de ubicar a los nuevos diseñadores y a las nuevas diseñadoras en Amara Berri, con el propósito de dinamizar el comercio de dicha zona.

En San Sebastián, a 22 de junio de 2017.

Josu Mirena Ruiz Martín,
concejal de EH Bildu de San Sebastián."

Eztabaida hasita, Josu Ruiz Martin jaunak, Ernesto Gasco Gonzalo jaunak eta Miren Albistur Garmendia andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Josu Ruiz Martin, D. Ernesto Gasco Gonzalo y Dª. Miren Albistur Garmendia, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 3 – PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 3 – PP.**

---------------

**II.2.2.16. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA Taldeak aurkeztua, haurtzaroaren aholku batzorde bat sortzea dela eta.**

“Amaia Martinek, Irabazi Donostia udal taldeko bozeramaileak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, PERTSONENTZAKO ZERBITZUEN BATZORDEAN Gizarte ekintzako zinegotzi ordezkariari, Aitziber San Román andreari, egindako interpelazioa dela eta.

JUSTIFIKAZIOA

Haurren Eskubideen aldeko Konbentzioaren arabera, haurrek eskubidea dute axola zaizkien eta beren ongizatean eragiten duten gaietan zer iritzi duten askatasun osoz adierazteko (12. art.); halaber, adierazpen askatasunerako eskubidea dute (13. artikulua), bai eta pentsamendu librerako eta kontzientzia askatasunerako eskubidea ere (14. art.). Uztailaren 28ko 26/2015 Legean, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzekoan, adierazten denez, adin txikikoek eskubidea dute beren inguruko gizarte, kultura, arte eta aisialdiko bizitzan bete-betean parte hartzeko eta, pixkanaka, herritar aktibo izaten hasteko;

**II.2.2.16. Moción de control que presenta el Grupo IRABAZI DONOSTIA, sobre la creación de un consejo asesor de la infancia.**

“Amaia Martin, Portavoz del Grupo Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL fruto de la interpelación que realizó en la COMISIÓN DE SERVICIOS A LAS PERSONAS a la concejala Delegada de Acción Social, Dña. Aitziber San Román.

JUSTIFICACIÓN

La Convención de los Derechos del niño establece que los niños y niñas tienen derecho a expresar libremente su opinión sobre los asuntos que les importan e inciden en su bienestar (art. 12), a la libertad de expresión (art. 13) ya la libertad de pensamiento y de conciencia (art. 14). En la Ley 26/2015, de 28 de Julio, de modificación del sistema de protección a la infancia y a la adolescencia se expresa que los menores tienen el derecho a participar plenamente en la vida social, cultural, artística y recreativa de su entorno y a tener una incorporación progresiva a la ciudadanía activa, a la vez que establece que desde los

horrez gain, Legean arautzen denez, adin txikikoek parte hartzeko organoak sortzea sustatu behar dute botere publikoek. Erkidegoari dagokionez, otsailaren 18ko 3/2005 Legean, Haurrak eta Nerabeak Zaintzekoan eta Babestekoan, haurrek eta nerabeek beren eskubideei buruzko informazio argia jasotzeko daukaten eskubidea aldarrikatzen da, bai eta beren banakako eta taldeko eskubideak errespetatzekoa ere; atal horretan, bereziki aipatzen da parte hartzerako eskubidea.

poderes públicos se promoverá la constitución de órganos para su participación. En el ámbito autonómico, la ley 3/2005 de 18 de febrero, de Atención y Protección a la Infancia y la Adolescencia proclama el derecho de los niños, niñas y adolescentes a ser claramente informados de sus derechos; a ver respetados sus derechos individuales y colectivos, con referencia específica a su derecho a la participación; entre otras cosas.

UNICEF erakundeak honela definitzen du parte hartzea: “norberaren bizitzari eta norbera bizi den komunitateko bizitzari eragiten dieten erabakiak partekatzen diren prozesua... Parte hartzearen bitartez, demokrazia eraikitzen da, eta demokrazien mesederako erabili behar den eredua da”. Haurren eta nerabeen ahotsa eta iritzia aintzat hartuz, talde gisa eta banako moduan errespetatzea dakar; haien iritzia entzuteak gizarteak haiekiko konpromiso bat hartzea eragiten du. Baina horretaz guztiaz gain, aurrerapen kualitatibo garrantzitsua da haur horien bizitzan, beren bizitzako oinarrizko eremuetako erabaki garrantzitsuetan parte hartzen baitute, hala nola familian, eskolan, hirian, auzoan edo bizi diren komunitatean. Erabaki horietan esku hartuz, pertsona arduratsuagoak eta helduagoak bihurtzen dira, beren bizitzarekiko gogobetetze handiagoa dute, autoestimu handiagoa, familiarekiko harreman hobea; finean, aktiboki parte hartuz, ardura eta erantzukizun handia hartzen dute, baina aldi berean, aukera dute beren bizitzaren garapenean autonomia eta kontrol handiagoz hazteko.

UNICEF define que la participación es un “proceso por el que se comparten decisiones que afectan a la propia vida y la vida de la comunidad en la que uno habita... se construye la democracia, y es un patrón que debe servir para las democracias”. Tener en cuenta la voz de la infancia y adolescencia equivale a respetarla como colectivo e individualmente, escuchar su opinión implica un compromiso por parte de la sociedad pero sin duda también supone un avance cualitativo importante en la vida de estos niños y niñas al participar en las decisiones que se toman en los ámbitos fundamentales de su vida: la familia, escuela, ciudad, barrio o la comunidad en la que residen. Implicarse en estas decisiones les ayuda a ser personas más responsables y maduras, con mejor nivel de satisfacción sobre sus vidas, más autoestima, a mantener una mejor relación con su familia y en definitiva ser participantes activos les supone una gran responsabilidad pero también la oportunidad de crecer con una mayor autonomía y control sobre el desarrollo de sus vidas.

Maiatzean, hainbat ikaslek Eskola Agenda 21 programaren ondorioak aurkeztu zituzten Udalean; programa hori 2005etik garatzen da, ikastetxeekin eta Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean, Cristina Enea Fundazioaren

El pasado mes de mayo numerosos escolares presentaron en el ayuntamiento las conclusiones del programa Agenda Escolar 21, el cual se viene desarrollando desde 2005 en colaboración con los centros escolares y el

bitartez. Eskola Agenda 21 ikastetxearen iraunkortasuna eta kalitatea bermatzeko hezkuntza programa bat da; komunitatearen parte hartzea du oinarri, eta udalerriaren garapen iraunkorra lortzeko esku hartzen du, lankidetzaren bitartez. Gaiari buruzko ekarpenak oso interesgarriak izan ziren, eta eskolan gai horren inguruan zer ikuspegi duten adierazi zuten.

Pertsonen Zerbitzurako Batzordean, hirian haurren parte hartzearekin egiten diren beste programa batzuei buruzko informazioa eskatu genuen. Zenbait programaren bitartez, haurrek aktiboki hartzen dute parte Haurtxokoetan garatzen diren jarduerei buruzko erabakietan; gure iritziz, ordea, haurrek funtsezko funtzioa dute hiriaren garapenean eta bilakaeran, bertan garatzen diren gai guztietan zer ikuspegi duten azalduz, haurtzaroko oinarrizko eskubidea baita, legeak berak aitortutakoa. Horregatik, eta egiten ari diren lanarekin jarraituz, beharrezkoa ikusten dugu haurrek gero eta ahots handiagoa izatea haiei axola zaizkien eta haien ongizatean eragiten duten gaietan, Haurraren Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalean jasotzen den moduan.

Hainbat udalerritan, urte asko daramatzate haurren parte hartzerako guneak garatuz, hainbat formaturen bitartez (udal kontseiluak, haurren foroak…); izan ere, haurren parte hartzea sustatzeko adibide argia dira, eta gainera, herritarrak txikitatik prestatzen dira parte hartzezko jardueretan. Hiriaren garapenean duten parte hartzea oinarrizko tresna izango da, eta erabaki onenak hartzeko aukera emango du; horrez gain, gizarte antolaketa indartuko du, eta komunitateko kide izatearen sentimendua eta harekiko

Gobierno Vasco a través de la Fundación Cristina Enea. La Agenda Escolar 21 es un programa educativo para la sostenibilidad y la calidad del centro educativo basado en la participación de la comunidad e interviniendo y colaborando con el desarrollo sostenible del municipio. Las aportaciones sobre este asunto resultaron de sumo interés y proporcionaron la visión que desde las escuelas aportaban en torno a este tema.

En la comisión de servicios a las personas recabamos información relativa a otros programas de participación de la infancia en la ciudad. A pesar de la existencia de varios programas donde, entre otras cosas, la infancia toma parte activa en la decisión de las actividades que se desarrollan en los haurtxokos, consideramos que la infancia tiene un papel determinante en el desarrollo y evolución de la ciudad aportando su visión sobre todos los asuntos que se desarrollan en la misma ya que se trata de un derecho básico de la infancia recogido por la propia ley. Por ello, y continuando con la labor que se viene desarrollando entendemos necesario amplificar la voz a la Infancia sobre los asuntos que les importan e inciden en su bienestar, tal y como recoge la Declaración Universal de los Derechos del Niño.

La existencia de espacios de participación de la infancia a través de diferentes formatos (consejos municipales, foros infantiles,…) se viene desarrollando desde hace muchos años en diferentes municipios ya que son un claro ejemplo de promoción de la participación infantil que se traduce en el ejercicio de la ciudadanía desde la infancia. Su participación en el desarrollo de la ciudad va a suponer un instrumento básico que va a permitir tomar mejores decisiones, fortaleciendo la organización social y un sentido de pertenencia

erantzukizuna sustatuko dira parte hartzearen bitartez.

Azken hilabeteetan, Bizkaiko hiriburuan Haurren eta Nerabeen Udal Kontseilua jarri dute abian.

Hori guztia dela eta, kontrol mozio hau aurkezten dugu:

KONTROL MOZIOA

1.Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio handitu dezala haurrek hiriko gai publikoetan duten parte hartzea, eta horretarako, sor dezala haurren eta nerabeen aholku kontseilua, gizarte, kultura, arte eta aisialdiko bizitzan erabateko parte hartzea izan dezaten.

2. Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio egin dezala Donostiako haurren eta nerabeen errealitatearen diagnosi bat, modu irekian eta haien parte hartzearekin, eta, diagnosia oinarri hartuta, gara dezala haurren parte hartzerako plan bat udalerri mailan.

3. Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio egin ditzala beharrezkoak diren urratsak, Donostiak Haurtzaroaren Hiri Laguna izendapena lor dezan.

Donostia, 2017ko ekainaren 21a

Izpta.: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia taldearen bozeramailea".

y responsabilidad en la comunidad , entre otras cosas.

En los últimos meses, la capital bilbaina ha puesto en marcha un consejo municipal de Infancia y adolescencia.

Es por ello, por lo que presentamos la siguiente

MOCIÓN DE CONTROL

1.El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a aumentar la participación de la infancia en los asuntos públicos de la ciudad, creando un consejo asesor de la infancia y la adolescencia al objeto de permitir la participación plena de éstas en la vida social, cultural, artística y recreativa de la ciudad.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a elaborar, de forma abierta y participativa con la infancia y la adolescencia de Donostia, un diagnóstico de su realidad, y a desarrollar, utilizando tal diagnóstico como base, un plan de participación infantil en el ámbito municipal.

3. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a dar los pasos necesarios para lograr que Donostia obtenga el reconocimiento de Ciudad Amiga de la Infancia.

Donostia a 21 de Junio de 2017

Fdo.: Amaia Martin Garin
Portavoz del Grupo Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Amaia Martin Garin andreak, Jose Luis Arrue Pinto jaunak, Naiara Sampedro Perez andreak eta Martin Ibabe Eceiza jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as Dª. Amaia Martín Garín, D. Jose Luis Arrúe Pintó, Dª Naiara Sampedro Perez y D. Martin Ibabe Eceiza, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**16. KONTROL MOZIOAREN 1.GO PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 16:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 19 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 6 – EH BILDU.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 19 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 6 – EH BILDU.**

**16. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 16:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 21 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP, (2)- IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 0.**
**ABSTENTZIOAK: 6 – EH BILDU.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 21 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP, (2)- IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 0.**
**ABSTENCIONES: 6 – EH BILDU.**

**16. KONTROL MOZIOAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 16:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 12 – (7) PSE-EE, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 9 – EAJ-PNV.**
**ABSTENTZIOAK: 6 – EH BILDU.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 12 – (7) PSE-EE, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 9 – EAJ-PNV.**
**ABSTENCIONES: 6 – EH BILDU.**

---------------

**II.2.2.17. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA Taldeak egina, Cristina-Enea parkean arrapala irisgarria egiteko proiektua dela eta.**

“Irabazi Donostia udal taldeko zinegotzi Loïc Alejandrok, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluak adierazten duena aintzakotzat hartu eta KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) hilabete honetan, Cristina-Enea parkean arrapala irisgarria egiteko proiektuko zuhaitzei buruz.

JUSTIFIKAZIOA

Hil honen 18tik (igandea) 19ra (astelehena) bitartean, Cristina-Enea parkean irisgarritasuna hobetze aldera parkearen itxitura hormaren alboko bidea egiteko proiektuaren esparruan, dozenaka zuhaitz bota ziren Cristina-Enea parkean. Mozketa horrek herritarren kezka handia eragin du; igandean bertan mozketari buruzko kartelak jarri zituzten parkean eta sare sozialetan.

Proiektuak beste sarbide bat eraikitzea planteatzen du, Mikel Laboa pasabidearen eta Gladys del Estal pasabidearen artean, hartara

**II.2.2.17. Moción de control que presenta el Grupo IRABAZI DONOSTIA, sobre el proyecto de rampa accesible en el parque Cristina Enea.**

“Loïc Alejandro, Concejal del Grupo Municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, consecuencia de la interpelación en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos del presente mes, en relación con el arbolado en el proyecto de rampa accesible en el parque Cristian Enea.

JUSTIFICACIÓN

En la noche del domingo 18 al lunes 19 de este mes, en el marco del proyecto de “Mejora de la accesibilidad en el Parque Cristina-Enea, trazado junto al muro del cierre del parque”, se ha procedido a talar varias decenas de árboles en el parque Cristinaenea. Esa tala ha provocado una importante preocupación por parte de ciudadanos y ciudadanas que habían advertido de la tala el domingo mismo con carteles en el parque y por las redes sociales.

El proyecto plantea la construcción de un nuevo acceso entre las pasarelas de Mikel Laboa sobre el Urumea y la de Gladys del Estal de

betetzeko 20/97 Legea, 68/2000 Dekretua eta 314/2006 Dekretua, EAEko irisgarritasunari buruzkoak.

Dokumentuak dioenez (6. or.), gaur egungo bidea eraitsita, eta bide berria itxitura hormarantz eramanda, plataforma berde bat lortzen da, zuhaitzik gabea, baina landare berriak landatu daitezke, eta hala, ibilbide berria egiteko nahitaez zuhaitzak kendu behar hori ahal den neurrian arindu.

Dokumentuak beste atal batean dioenez (19. or.), zenbait zuhaitz aldatzeko aukera planteatzen du proiektuak.

Horrelako terminoak erabiltzeak (landatu daitezke, ahal den neurrian, zenbait, aukera planteatzen du…) zehaztugabetasun moduko batean uzten gaitu. Memorian, zenbat zuhaitz kenduko diren jakiteko, eskuz zenbatu behar dira planoetako batean. Dokumentuak ez du zehazten zenbat eta zein zuhaitz aldatuko diren, zenbat botako diren, zenbat berri landatuko diren, ez eta zuhaitz berriek espezie autoktonoak izan beharko dutenik ere.

Batzordean, zinegotzi ordezkariak esan zuen ez zekiela zenbat zuhaitz bota ziren. Cristina-Enea parke enblematikoan zuhaitzak mozteak, zein zuhaitz eta zenbat diren jakin gabe, eta mozketa horiek nola konpentsatuko diren jakin gabe, arazoak sortzen dituelakoan gaude. Horren inguruan, konpentsazio neurri zehatzik ez egotea erlatibizatu egin zuen zinegotzi ordezkariak, argudio hauek baliatuta:

• Parke eta lorategiei buruzko ekainaren 9ko txostenaren arabera, sokak jartzean zuzendu daiteke alderdi hori.

forma que se cumpla la Ley 20/97, el decreto 68/2000 y decreto 314/2006 sobre accesibilidad en la C.A.P.V.

La memoria del proyecto dice (p6) “Con la demolición del camino actual y el desplazamiento del nuevo, hacia el muro de cierre, se obtiene una plataforma verde, libre de arbolado, susceptible de plantación de nuevos ejemplares y así paliar en lo posible la eliminación de arbolado que el nuevo trazado exige.”

En otro apartado dice (p19) “El proyecto plantea la posibilidad de trasplantar algunos árboles”.

El empleo de terminologías como “susceptible”, “en lo posible”, “algunos” o “plantea la posibilidad” nos deja en una indefinición total. En la memoria, para saber cuántos árboles se preveía retirar, había que contarlos manualmente en uno de los planos. El documento no define cuántos y qué árboles se trasplantarían, cuántos se talan, cuántos nuevos se plantarían, y tampoco precisa que los nuevos árboles tendrán que ser de especies autóctonas.

En comisión, el Concejal Delegado comentó que no sabía cuántos árboles habían sido talados. Nos parece por lo menos problemático talar árboles en un parque tan emblemático como el Cristina-Enea, sin saber cuáles y cuántos, y sin tener la más mínima idea de cómo se compensarán esas talas. A este respecto, el Concejal Delegado relativizó la falta de medidas de compensación concretas argumentando que:

• según el informe de Parques y Jardines de 9 de junio, este aspecto podrá ser subsanado en la tira de cuerdas.

• Gobernuak konpentsazio neurriak definitzeko eta gauzatzeko konpromisoa hartu du.

Horren haritik, eta aipatutako parke eta lorategiei buruzko txostenaren arabera, Cristina-Enea parkean Mundaizko hormaren ondoan irisgarritasuna hobetzeko proiektuari paisaia eranskin bat egiteko konpromisoa hartzen bada, zuhaitzen konpentsazioa kontuan hartuta, eska daitezkeen minimoak beteko direla ulertzen da. Beraz, mozio honen bidez proposatu nahi dugu konpromiso hori bete dadila.

Bestalde, Cristina Enea Fundazioak ez du proiektuaren azken bertsio hori jaso, eta ez dakigu Ingurumen Departamentuak haren berri ba ote duen. Ingurumen Departamentuak eta Cristina Enea Fundazioak egiten dituzten jarduera eta lanekin lotuta dagoen gaia denez, bi erakunde horiek nahitaezko txostenak egiteko eskumen formalik ez badute ere, penatzen gaitu proiektuari ekarpenak (zentzu positiboan edo negatiboan) egiteko aukerarik ez izana, zuhaitz asko moztea baitakar proiektu horrek. Horregatik, garrantzi handikoa da, gure iritziz, konpentsazio neurriak definitzeko garaian bi erakunde horien oharrak biltzea.

Amaitzeko, Cristina-Enea parkea F babes mailarekin katalogatuta dago Hirigintza Ondare Eraikia Babesteko Plan Berezian. Azpimarratzekoa da babes horrek baso eremuak ere barnean hartzen dituela: parkeari dagokionez, haren konfigurazio orokorra, baso eremuak, soilguneak, urmaelak, pasealeku eta zubiak, eta abar.

Hirigintza Ondare Eraikia Babesteko Plan

• se adopta el compromiso de parte del Gobierno de definir y realizar las medidas compensatorias.

En este sentido, y también porque el mencionado informe de Parques y Jardines dice que “si se asume el compromiso de elaborar un anexo paisajístico al proyecto de ‘mejora de accesibilidad junto al muro de Mundaiz del parque Cristina-Enea’, donde se contemple la compensación al arbolado, se entiende que se cumplen los mínimos exigibles”, queremos proponer con esa moción que se lleve a cabo ese compromiso.

Por otro lado, la Fundación Cristina-Enea no ha tenido conocimiento de esa última versión del proyecto, y tampoco sabemos si el Departamento de Medio Ambiente la ha conocido. Al ser un tema que tiene que ver con las actividades y trabajos que desarrollan el Departamento de Medio Ambiente y la Fundación Cristina-Enea, lamentamos que estas dos entidades, aunque no tengan formalmente competencia en el asunto para producir informes preceptivos, no hayan podido aportar observaciones, en positivo o negativo, al proyecto ya que implica una tala importante de árboles. Y por eso consideramos que es importante recabar las observaciones de estas dos entidades a la hora de definir las medidas de compensación.

Por último, el Parque Cristina-Enea está catalogado en el Plan Especial de Protección del Patrimonio Urbano Construido (PEPPUC) con el grado de protección F. Cabe resaltar que la protección incluye las masas boscosas: “En lo referente al parque: configuración general del parque con sus masas boscosas, claros, estanques, paseos y puentes, etc.”.

El artículo 33 del PEPPUC obliga a redactar

Bereziaren 33. artikuluak agintzen du dokumentu batzuk idatzi behar direla, katalogatutako elementu bati eragiten dion jarduketaren bat egin nahi denean. Horrelako dokumenturik ez dago, eta egin beharko lirateke.

una serie de documentos en caso de "actuación que se pretenda llevar a cabo afectando a un elemento catalogado". Esos documentos no existen en el expediente y deberían existir.

Horiek guztiak horrela, hau da gure

Por todo lo anteriormente expuesto, presentamos la siguiente:

KONTROL MOZIOA

MOCIÓN DE CONTROL

1. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio Cristina-Enea parkean irisgarritasuna hobetze aldera parkearen itxitura hormaren alboko bidea egiteko proiektuari paisaia eranskin bat egiteko, kaltetutako zuhaitzak nola konpentsatuko diren zehatz-mehatz definituta.

1. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a que elabore un anexo paisajístico al proyecto de "Mejora de la accesibilidad en el Parque Cristina-Enea, trazado junto al muro del cierre del parque" donde se defina con precisión la compensación al arbolado afectado por el proyecto.

2. Donostiako Udalbatzak, halaber, Udal Gobernuari eskatzen dio Cristina-Enea parkean irisgarritasuna hobetze aldera parkearen itxitura hormaren alboko bidea egiteko proiektuak kaltetutako zuhaitzak konpentsatzeko neurriak definitzeko lanetan Ingurumen Departamentuak eta Cristina Enea Fundazioak parte hartzeko bideak jar ditzala.

2. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a que establezca cauces de participación del Departamento de Medio Ambiente y de la Fundación Cristina-Enea en la definición de las medidas compensatorias relativas al arbolado afectado en el proyecto de "Mejora de la accesibilidad en el Parque Cristina-Enea, trazado junto al muro del cierre del parque".

3. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio Cristina-Enea parkean irisgarritasuna hobetze aldera parkearen itxitura hormaren alboko bidea egiteko proiektuaren administrazio espedientean sar ditzala eskatutako txostenak, Hirigintza Ondare Eraikia Babesteko Plan Berezian katalogatutako elementu bati eragiten dion jarduketa baitakar proiektu horrek.

3. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a que incorpore al expediente administrativo del proyecto de "Mejora de la accesibilidad en el Parque Cristina-Enea, trazado junto al muro del cierre del parque", los informes requeridos por implicar una actuación afectando a un elemento catalogado en el Plan Especial de Protección del Patrimonio Urbano Construido.

Donostia, 2017ko ekainaren 23a

Donostia a 23 de Junio de 2017

Sin. Loïc Alejandro,
Irabazi Donostia taldeko zinegotzia".

Fdo. Loïc Alejandro
Concejal del Grupo Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Loïc Alejandro jaunak eta Alfonso Gurpegui Ruiz jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. Loïc Alejandro y D. Alfonso Gurpegui Ruiz, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 7 – (5) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 2 – PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 7 – (5) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 2 – PP.**

---------------

**II.2.2.18. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA Taldeak egina, amiantoz hesitutako Altzako lursailei buruzkoa.**

"Irabazi Donostia taldeko zinegotzi Loïc Alejandrok, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du. Mozioa hilabete honetan Lurraldearen Garapen eta Planifikazio Batzordean Altzako kiroldegiaren inguruan amiantoa aurkitu den lursailei buruz aurkeztutako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Aurtengo martxoan ohartu ginen CEP Harri Berri – Oleta LHI Lehen Hezkuntzako ikastetxearen ekialdeko 3. eremuko hesiak

**II.2.2.18. Moción de control que presenta el Grupo IRABAZI DONOSTIA, sobre el vallado de la parcela con amianto en Altza.**

"Loïc Alejandro, Concejal del Grupo Municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, consecuencia de la interpelación en la Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio del presente mes, relativa a las parcelas donde se ha encontrado amianto alrededor del polideportivo de Altza.

JUSTIFICACIÓN

En el mes de marzo de este año advertimos que el vallado de la superficie 3, al este del centro de enseñanza primaria CEP Harri Berri -

zenbait irekigune zituela, oraindik handik sartzen den jendeak eginak. Arazo hori bereziki larria da, izan ere:

- Lursail horretan amiantoa gainazalean ez ezik agerian ere badago.
- Lurzoruko amianto kontzentrazioa handiagoa da aztertutako gainerako lursailetakoa baino.
- Lursail hori ikastetxeko jolastokiaren mugakidea da, eta lurzoruan bistan dagoen amiantoa ikastetxeko jolastokitik 2 metrotara dago, gutxi gorabehera.

Alde batetik, amiantoa arnasteak osasunarentzako kaltea dakar manipulatzen den bitartean soilik. Bestetik, airea aztertu da, eta emaitzak negatiboak izan dira kasu guztietan. Beraz, lursailean sartzeko aukerarik ez badago, lursail horretan dagoen amiantoa manipulatzeko aukerarik ez dago, eta arnasteak ez dakar osasunarentzako arriskurik. Hesiaren eraginkortasuna eta osasunarentzako arrisku potentziala zuzenean lotuta daude. Lursailean zenbat eta jende gutxiago sartu, orduan eta arrisku txikiagoa.

Horregatik eskatu genuen martxoko gure mozioaren 2. puntuan itxitura seguruago bat jartzeko, lursailean sartzea ahalik eta gehien eragozteko. Gobernuak kontrako botoa eman zuen puntu horretan eta argudiatu zuen ezin zela itxitura seguruagorik jarri, amiantoa egonda itxitura zoruan finkatzerik ez zegoelako. 3. eremuan itxitura ez hobetzearen ondorioa aurrez ikus zitekeen: plastikozko bridak ebaki, itxitura ireki eta lursail barrura etengabe sartzen zen jendea.

Egoera horri erantzunez, Udal Gobernuak iritzia aldatu du, martxoan gure mozioa bozkatu zenetik, eta bigarren hesi bat jarri du, lehenengoaren antzekoa; hau da, oinarritik

Oleta LHI, tenía varias aperturas hechas por gente que seguía accediendo a ella. Es un problema particularmente agudo ya que:

- en esa parcela se encuentra amianto no sólo en superficie, sino también a la vista
- la concentración de amianto en el suelo es más alta que en las otras parcelas analizadas
- esa parcela es limítrofe con el patio del colegio de tal forma que el amianto a la vista en el suelo está a unos 2 metros del patio del colegio

Por un lado, el amianto presenta riesgos para la salud por inhalación solo cuando es manipulado. Por otro lado, se han hecho tomas de aire que han dado resultado negativo en todos los casos. Por lo tanto, si no hay posibilidad de entrar en la parcela, no hay posibilidad de manipular el amianto presente en esa parcela, y entonces no hay riesgo para la salud por inhalación. Hay un vínculo directo entre la efectividad del vallado y el potencial riesgo para la salud. Cuanto menos gente entre en la parcela, menos riesgo.

Por eso pedíamos en el punto 2 de nuestra moción de marzo que se colocara un vallado más seguro, para dificultar lo más posible el acceso a la parcela. El Gobierno votó en contra de ese punto argumentando que no se podía hacer un vallado más seguro ya que no se podía anclar el vallado al suelo por la presencia de amianto. El resultado de no haber mejorado el vallado de la superficie 3 fue el previsible: las personas cortaban las bridas de plástico, abrían el vallado y accedían a la parcela continuamente.

En respuesta a eso, el Gobierno ha cambiado de opinión desde la votación de nuestra moción en marzo, y ha decidido colocar un segundo vallado del mismo tipo que el primero, es decir

erraz kentzen diren zutoinez egina, eta zutoin horiek plastikozko bridaz lotuta. Neurri hori bide onetik doa, baina lehenengo hesiko bridak guraizez edo cutterrez ebaki, zutoinak kendu eta handik pasatzen zen jendeak nahiko erraz egingo du gauza bera orain ere.

con postes que se quitan fácilmente de la base y sujetando los postes con bridas de plástico. Es una medida que va en el sentido bueno, pero la gente que cortaba las bridas del primer vallado con tijeras o cutter y que sacaban los postes de sus bases para pasar, podrán seguir haciéndolo con bastante facilidad.

Batzordean aipatu genuen, esate baterako, Kontxa pasealekuko obren hesia ez dela lurzoruan ainguratu behar. Plastikozko olana batean jarritako kofratua da: hormigoia botatzen da eta hesia osatzen duten zutoinak segurtasunez finkatuta geratzen dira. Horregatik eskatu genuen antzeko hesi bat egitea 3. eremuko zati lau eta asfaltatuetan.

En comisión comentamos que por ejemplo el vallado de las obras en el paseo de la Concha no necesitaba estar anclado al suelo. Se trata de un encofrado depositado en una lona de plástico en el cual se vierte hormigón donde los postes del vallado están sujetos de manera segura. Por eso pedimos que se haga un vallado del mismo tipo en las partes llanas y asfaltadas de la parcela 3.

Zinegotzi ordezkariak ezezkoa eman ostean, gutxienez kateak eta giltzarrapoak jartzea eskatu genuen, hesiaren elementuak ez banantzeko. Berriro ezezko erantzuna jaso genuen. Zinegotzi ordezkariak argudiatu zuen norberaren baratzara sartu nahi zuen jendeak berdin moztuko zituela kateak, eta joan-etorria behin betiko eragotziko zuen neurria izan ezean ez zuela merezi abian jartzea.

Ante la negativa del Concejal Delegado pedimos entonces que se colocaran por lo menso cadenas con candados para impedir que separaran los elementos del vallado. La respuesta también fue negativa. El Concejal Delegado argumentó que la gente que quiere acceder a sus huertas cortarán entonces las cadenas igualmente, y que por lo tanto, si no es una medida que permita impedir definitivamente el paso, no vale implementarla.

Hainbat arrazoi direla eta, ez gaude ados Udal Gobernuaren argudioarekin:

Por varios motivos no podemos compartir la argumentación de Gobierno:

- Bigarren hesi bat jartzea ere ez da joan-etorria behin betiko eragotziko duen neurria. Baina, hala ere, Udal Gobernuak jarri du, lursailera gutxiago sartzeko lagungarria izan daitekeela iritzita. Kateak eta giltzarrapoak jartzeak helburu berbera izango luke.

- Colocar un segundo vallado tampoco es una medida que permita impedir definitivamente el paso. Pero el Gobierno lo ha colocado porque ha considerado que puede contribuir a limitar más el acceso a la parcela. Poner cadenas con candados tendría exactamente la misma finalidad.

- Teknikoki, plastikozko bridak edo giltzarrapoz lotutako kate bat moztea ez da gauza bera: alboko Lehen Hezkuntzako

- Técnicamente, no es lo mismo cortar bridas de plástico o una cadena con candado: unas bridas de plástico se pueden cortar con

ikastetxeko haurrek eskolan erabiltzen dituzten guraizeez moztu daitezke plastikozko bridak. Kate bat, ordea, ez.

- Sinbolikoki, plastikozko bridak edo giltzarrapoz lotutako kate bat moztea ez da gauza bera: plastikozko bridak ebakitzea, funtsean, zutoinei eusteko elementu bat moztea da. Giltzarrapoz lotutako kate bat moztea da, argi eta garbi, ez pasatzeko jarritako elementu bat moztea.

- Ez dakigu lursailera sartzen diren pertsonak baratzeen erabiltzaileak ote diren. Alde batetik, Tomasenen ekainaren 13an egindako bilera publikoan auzoko batek esan zuen haurrak hara joaten direla ikastetxeko hesiaren gainetik pasatu diren baloien bila. Bestetik, ikusten da lursailaren barruan (ikastetxeko hesiaren parean) dagoen zuhaiztia jolas eremua dela.

Udal Gobernuari eskatzen diogu kateak eta giltzarrapoak jartzeari emandako ezezkoa azter dezala berriro. Egin beharreko inbertsioa eta lana ez dira aintzat hartzekoak, eta neurri askoz ere eraginkorragoa da plastikozko bridak jartzea baino. Garrantzi handikoa da kaletik ikusten den hesi zatian jartzea kate horiek; izan ere, eremu horretan irekigune bat ikusteak heldu eta gazte gehiago lursailera sartzera bultzatzen ditu.

Horiek guztiak horrela, hau da gure

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak neurri hauek eskatzen dizkio Udal Gobernuari:

- CEP Harri Berri - Oleta LHI Lehen

las tijeras que los niños y niñas de la escuela primaria colindante utilizan en clase. Una cadena no.

- Simbólicamente, no es lo mismo cortar bridas de plástico o una cadena con candado: cortar bridas de plástico, es principalmente cortar un elemento que sirve para sujetar los postes. Cortar una cadena con candado, es cortar de forma inequívoca un elemento que es destinado a prohibir el paso.

- No sabemos si las personas que acceden a la parcela solo son usuarios o usuarias de las huertas. Por un lado, en la reunión pública del 13 de junio en Tomasene, una vecina comentaba que los niños y niñas van ahí a buscar los balones que han pasado por encima de la valla del colegio. Y por otro lado se nota que el bosquete dentro de la parcela justo en frente de la valla del colegio es una zona de juego.

Pedimos al Gobierno reconsiderar su negativa a colocar cadenas con candados. La inversión y el trabajo requeridos son insignificantes, y es una medida mucho más eficaz que colocar bridas de plástico. Es particularmente importante colocar esas cadenas en la parte del vallado visible desde la calle, ya que una apertura a la vista en esta zona invita a que más personas, adultas y jóvenes, entren en la parcela.

Por todo lo anteriormente expuesto, presentamos la siguiente:

MOCION DE CONTROL

1. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a que:

- asegure los elementos del vallado de la

Hezkuntzako ikastetxearen mugakide den lursailean amiantoa aurkitutako gunea inguratzen duen hesiaren elementuak berma ditzala kateak eta giltzarrapoak baliatuta, ezinezkoa izan dadin hesiaren zatiak nahikoa banantzea pertsona heldu edo gazte bat tartetik pasatzeko, ezta zutoinak oinarritik aterata ere.

• Kate eta giltzarrapo horiek jar ditzala kaletik ikusten den zatian, astero egiazta dezala hesi guztia osorik dagoela, eta irekiguneak ikusitako tokietan kateak eta giltzarrapoak jar ditzala.

Donostia, 2017ko ekainaren 23a

Sin. Loïc Alejandro,
Irabazi Donostia taldeko zinegotzia."

parcela donde se ha encontrado amianto, colindante con el centro de enseñanza primaria CEP Harri Berri - Oleta LHI, con cadenas y candados de tal forma que sea imposible separar suficientemente las partes del vallado como para que una persona adulta o joven pueda pasar, incluso sacando los postes del vallado de sus bases.

• coloque esas cadenas candadas en la parte del vallado visible desde la calle, realice semanalmente verificaciones del vallado en su integridad, y coloque cadenas con candados donde se identifican aperturas.

Donostia a 23 de Junio de 2017

Fdo. Loïc Alejandro
Concejal del Grupo Irabazi Donostia"

Loïc Alejandro jaunak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto el señor D. Loïc Alejandro, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.2.19. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA Taldeak egina, amiantoz hesitutako Altzako lursailei buruzkoa.**

"Irabazi Donostia taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau egiten dio Gizarte Ekintzako

**II.2.2.19. Moción de control que presenta el Grupo IRABAZI DONOSTIA, sobre el vallado de la parcela con amianto en Altza.**

"Amaia Martin, Portavoz del Grupo Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCION DE CONTROL fruto de la

zinegotzi ordezkari Aitziber San Romani, PERTSONENTZAKO ZERBITZUEN BATZORDEAN egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Legealdian zehar hainbat ekimen egin ditugu Gizarte Harrerako Udal Zentroaren (GHUZ) eranskinari buruz. GHUZen eranskin hori adingabeak ardurapean dituzten familiak hartzeko erabiltzen da. Elkarren gaineko oheak dituzten 3 logela ditu (2, 6 eta 8 ohe), sukalde-jantoki bat, 2 bainugela eta dutxa bat. Egonaldiak, salbuespenetan izan ezik, ezingo dira izan hiru gau baino luzeagoak.

Alabaina, azken urteko txostenak jasotakoaren arabera, gune horren erabilera intentsiboa egin da. Urteko 365 egunetan beteta egon da, eta aurreko urtean baino familia kopuru gutxiago hartu dira; horrek esan nahi du larrialdiko hiru egun horiek baino askoz ere erabilera luzeagoak egin direla.

Iaz planteatu genuen GHUZen eranskinaren funtzionamendurako araudia garatzeko premia, eta otsailean onetsi zen. Urte eta erdi geroago, ez daukagu araudi hori, eta funtsezkoa delakoan gaude, instalazio horri ematen zaion erabilera dela eta.

Denbora horretan guztian, adingabeak eskolatzeko ekimenak, egonaldietarako baldintza hobeak eta instalazio egokiagoak planteatu ditugu, besteak beste. Hala eta guztiz ere, gehienetan ez dira ekimen horiek onetsi.

Instalazio hori gehiago erabili dela ikusita, gizarte zerbitzuek baloratuta hirian denbora luzeagoan egotea pentsatzen duten familientzat

interpelación realizada en la COMISION DE SERVICIOS A LAS PERSONAS a la concejala Delegada de Acción Social, Dña. Aitziber San Román.

JUSTIFICACIÓN

Han sido numerosas las iniciativas a lo largo de la legislatura que hemos realizado sobre el anexo del Centro Municipal de Acogida Social (CMAS). Este alojamiento anexo al CMAS es destinado a familias con menores a su cargo. Dispone de 3 habitaciones con literas (de 2, 6 y 8 camas), un cocina-comedor, 2 baños y una ducha. Las estancias, salvo excepciones, no deben superar las tres noches.

Sin embargo, el informe del último año recogen un uso intensivo del espacio que ha permanecido ocupado los 365 días al año por un número inferior de familias que el año anterior, lo que resulta en la ecuación un uso muy superior a los tres días de urgencia.

El pasado año planteamos la necesidad de desarrollar un reglamento de funcionamiento del anexo del CMAS que fue aprobado en pleno en el mes de Febrero. Año y medio más tarde, no contamos con tal reglamento y consideramos fundamental debido al uso de tal instalación.

En todo este tiempo, hemos planteado iniciativas relativas a la escolarización de los menores, mejores condiciones de estancia con instalaciones más adecuadas, entre otras. Sin embargo en la mayoría de los casos no han sido aprobadas tales iniciativas.

Ante el incremento de uso de tal instalación planteamos la necesidad de buscar alternativas habitacionales en mejores condiciones para

baldintza hobeagoak dituzten bizitegi alternatibak bilatzeko premia planteatzen dugu. Hiriko larrialdi zerbitzuen laguntza duten bitartean, egonaldi duina eta baldintza egokiak eman behar zaizkie familiei, haien oinarrizko premiei erantzunez.

Bitartekoak jartzea ezinbestekoa da; bestela, ahultasun eta pobrezia egoerak betikotzen ditugu adingabe horien artean, lo egiteko toki egonkor bat ez izateagatik soilik.

Horiek horrela, hau da gure

KONTROL MOZIOA

1. Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio GHUZen eranskinaren funtzionamendua erregulatuko duen araudi bat prestatzeko, hiru hilabeteko epean, 2016ko otsailean onetsi zen mozioko puntua betez.

2. Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio GHUZen eranskinerako ezarritako larrialdiko hiru egunetik gorako egonaldiak egin behar dituzten familientzako bizitegi alternatibak plantea ditzala.

3. Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio zerbitzua hobetzeko lan egiten jarrai dezala, egoera ahulean dauden familiei kalitatezko bizitegia eta eskubideak emateko.

Donostia, 2017ko ekainaren 23a

Sin. Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia taldearen bozeramailea”

aquellas familias que, valorado por los servicios sociales, consideren prolongar su estancia en la ciudad. Es preciso que mientras estén apoyados por los servicios de urgencia de la ciudad, ésta proporcione a las familias una estancia digna y en condiciones, dando cobertura a sus necesidades básicas.

Es imprescindible poner medios porque, de lo contrario, perpetuamos situaciones de vulnerabilidad y pobreza en estos menores por la simple circunstancia de no tener un lugar estable donde dormir.

Es por ello, por lo que presentamos la siguiente

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno municipal a elaborar, en el plazo de tres meses, un reglamento que regule el funcionamiento del anexo del CMAS, dando cumplimiento al punto de la moción que fue aprobada en el mes de febrero de 2016.

2. El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno municipal a plantear alternativas habitacionales para las familias cuya estancia se prolongue por encima de los tres días de urgencia establecidos para el anexo del CMAS.

3. El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno municipal a continuar trabajando en la mejora del servicio al objeto de proporcionar un alojamiento de calidad y con derechos para las familias más vulnerables.

Donostia a 23 de Junio de 2017

Fdo.: Amaia Martin Garin
Portavoz del Grupo Irabazi Donostia”

Eztabaida hasita, Amaia Martin Garin andreak, Jose Luis Arrue Pinto jaunak, Olaia Duarte Lopez andreak eta Aitziber San Roman Abete andreak parte hartu dute puntu hauetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en estos puntos el/las señor/as Dª. Amaia Martín Garín, D. Jose Luis Arrúe Pintó, Dª. Olaia Duarte Lopez y Dª. Aitziber San Roman Abete, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 2 – PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 2 – PP.**

---------------

**II.2.2.20. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA Taldeak aurkeztua, herritarrek alkatetzaren helbide elektronikora helarazitako informazioa dela eta.**

”Irabazi Donostia taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udalbatzaren Araudi Organikoan indarrean dagoen 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO aurkeztu nahi du, hilabete honetako ZERBITZU OROKORREN BATZORDEAN Lehendakaritzako eta Gardentasuneko, Giza Baliabideetako eta Berrikuntzako zinegotzi ordezkari Juan Ramón Viles jaunari egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Joan den otsailean, gure taldeak kontrol mozio bat aurkeztu zuen, 2017. Donostia, nahi duzun hiria izeneko eskuorria dela eta.

**II.2.2.20. Moción de control que presenta el Grupo IRABAZI DONOSTIA, sobre la información que llega de la ciudadanía al correo de alcaldía.**

“Amaia Martin Garin, Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL fruto de la interpelación al concejal delegado de Presidencia y Transparencia, Recursos Humanos e Innovación, D. Juan Ramón Viles, en la COMISIÓN DE SERVICIOS GENERALES del presente mes.

JUSTIFICACIÓN

El pasado mes de febrero nuestro grupo presentó una moción de control en relación al folleto denominado “2017. Donostia, la ciudad

que quieres”.

Orduko mozio hartan jada zenbait gako aipatu genituen, gainerako taldeon informazio ezari irtenbidea bilatu nahian, Donostiari buruzko proposamenak egin ditzaten herritarrei eskuorri horretan aipatzen zaien helbide elektroniko bakarra Alkatetzarena dela eta.

En la moción que presentamos en aquel momento, ya adelantábamos una serie de claves para solventar la falta de información al resto de grupos, ya que en el citado folleto tan solo se facilita el correo de alcaldía para que la ciudadanía deje sus propuestas para la ciudad.

Esan bezala, eskuorri horretan herritarrei dei egiten zitzaien zernahi proposamen, kritika edo ideia Alkatetzaren helbide elektronikora bidal zezaten. Ez dugu ulertzen zergatik erabaki den herritarrei Alkatetzaren helbide elektronikoa ematea, eta ez postontzi ireki eta partekatu bat, adibidez Udalinfo bezalako bat, gainerako taldeok ere kontsultatzeko modukoa. Herritarren kexak eta iradokizunak balio handiko baliabidea dira, hiria hobetzeko ideiak lortzeko modua ematen dutelako, besteak beste, eta, horregatik, gure ustez behar-beharrezkoa da herritarren jakinarazpen horiek guztiak Udalbatza osatzen dugun talde politiko guztiekin partekatzea.

En el citado folleto, se animaba a la ciudadanía a enviar al correo electrónico de alcaldía sus propuestas, críticas o ideas. No entendemos el motivo por el que se ha decidido facilitar a toda la ciudadanía el correo de alcaldía, y no un buzón que sea abierto y compartido como el de Udal Info que podamos consultar el resto de grupos. Las quejas y sugerencias de la ciudadanía son un instrumento muy valioso que sirven para obtener ideas para mejorar la ciudad, por lo que nos parece indispensable que sean compartidas con todos los grupos políticos que conformamos el Pleno.

Orduko mozio hartan aipatu genuen, halaber, komeni izango zela eskuorri hori dela-eta Udalinfora iritsitako jakinarazpenak bereiztea.

También planteamos que Udal Info, que tramita las comunicaciones que se dirigen a este Ayuntamiento, pudiera clasificar las comunicaciones que lleguen con motivo del folleto.

Gure mozioa eztabaidatu ondoren, puntu hau onartu zen: “Donostiako udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio Udalbatza osatzen duten gainerako taldeekin partekatu ditzala 2017. Donostia, nahi duzun hiria eskuorriari erantzunez Alkatetzaren helbide elektronikora iristen diren iradokizunak”. Ahalik eta gardentasun handienaz jokatu behar delakoan, batzordean berriro ere gogorarazi genuen Udalbatzan puntu hori onartzea erabaki bazen ere, eta harrezkero lau hilabete joan badira ere, udal taldeok jaso dugun informazio bakarra

Tras el debate de nuestra moción, fue aprobado el punto siguiente: “El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a compartir con el resto de grupos que componen el Pleno las sugerencias que lleguen al correo de Alcaldía con motivo del folleto “2017. Donostia, la ciudad que quieres”. Entendiendo que es preciso ser lo más transparentes posible, hemos vuelto a recordar en comisión que, a pesar del acuerdo alcanzado en Pleno sobre este punto, desde entonces hasta hoy han transcurrido cuatro

zerrenda bat dela, paperean, herritarrek urtarriletik martxora bitartean egindako jakinarazpen edo proposamenen deskribapen labur-laburrez osatua; hain laburra, ezin jakin baitaiteke proposamen horien nondik norakoa. Gure ustez, mugatuegia. Bestalde, batzordean esan ziguten egoki deritzogun edozer eskatzeko aukera dugula. Irabazi Donostia taldekook esan genuenez, alabaina, horrelako jakinarazpenak inolako oztoporik gabe jaso beharko genituzke, zuzenean, guk eskatu behar izan gabe, horretarako oztopo teknikorik ez baitago.

Horregatik guztiagatik, kontrol mozio hau aurkezten dugu:

KONTROL MOZIOA

1.Donostiako udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio Udalbatza osatzen duten gainerako taldeei helaraz diezazkiela, hilean behin, 2017. Donostia, nahi duzun hiria eskuorriari erantzunez Alkatetzaren helbide elektronikora iristen diren jakinarazpenak, osorik, formatu digitalean.

2.Donostiako udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio herritarrei jakinaraz diezaiela zer bide erabil ditzaketen Udalarekin harremanetan jartzeko (hala nola Udalinfo eta Dpostontzia), kudeaketan gardentasuna hobetzeko, batetik, eta harremanak optimizatzeko, bestetik.

3.Donostiako udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio herritarrei nahiz talde politikoei jakinaraz diezaiela Alkatetzaren helbide elektronikora donostiarrek helarazitako ekarpenak direla-eta zer jardunbide egiteko

meses, y sin embargo, la única información compartida con los grupos ha sido un listado en formato papel con las entradas de enero a marzo con una sucinta descripción de la propuesta que no permite saber la orientación de la misma. Algo que nos parece bastante limitado. Asimismo, en la comisión se nos indicó que podíamos solicitar aquello que consideráramos oportuno. Sin embargo, desde nuestro grupo planteamos la necesidad de establecer una comunicación fluida sobre este tipo de comunicaciones sin que sea preciso la solicitud de las mismas, puesto que no hay ningún problema de tipo técnico para ello.

Por todo ello presentamos la siguiente:

MOCIÓN DE CONTROL

1.El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a compartir el contenido completo (en formato digital) de las comunicaciones recibidas en el correo de Alcaldia con motivo del folleto “2017. Donostia, la ciudad que quieres” con el resto de grupos que componen el Pleno, con una periodicidad mensual.

2.El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a informar a la ciudadanía de los canales existentes a través de las que se pueden comunicar con el Ayuntamiento como Udal Info o Dpostontzia, al objeto de mejorar la transparencia en la gestión de la información así como a optimizar los flujos de la misma.

3.El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a que informe a la ciudadanía y a los grupos políticos de las actuaciones que tiene previsto llevar a cabo consecuencia de las aportaciones

asmoa duen.

realizadas por los y las donostiarras a través del correo de Alcaldía.

Donostia, 2017ko ekainaren 23a

Donostia a 23 de Junio de 2017

Izpta.: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia taldearen bozeramailea."

Fdo.: Amaia Martin Garin
Portavoz del Grupo Irabazi Donostia"

Eztabaida hasita, Amaia Martin Garin andreak, Axier Jaka Goikoetxea jaunak, Jon Insausti Maisterrena jaunak, eta Miren Albistur Garmendia andreak parte hartu dute puntu hauetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en estos puntos los/las señores/as Dª Amaia Martín Garín, D. Axier Jaka Goikoetxea, D. Jon Insausti Maisterrena y Dª. Miren Albistur Garmendia, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**20. KONTROL MOZIOAREN 1.GO PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 20:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 17 – (7) PSE-EE, (6) EH BILDU, (2) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 9 – EAJ-PNV.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 17 – (7) PSE-EE, (6) EH BILDU, (2) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 9 – EAJ-PNV.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**20. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 20:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

**20. KONTROL MOZIOAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 20:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

--------------

**II.2.2.21. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, Ulia mendia eta kaleko zuhaiztia direla eta.**

“Axier Jaka Goikoetxea EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2017ko apirilaren 10an Gune Publikoko Batzordean aztertutako “ zuhaiztien mozketa eta birjartzeari” buruzko interpelazioaren eta 2017ko ekainaren 19an Lurralde Planifikazioko Batzordean aztertutako “Uliako Plan Bereziaren inguruko informazio eta bilerari” buruzko interpelazioen ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2010ean Udalbatzan onartutako Donostiako Hiri Antolamendurako Plan Orokorrak (HAPO) agintzen zuen Landa Parke (F.20) gisa definitutako “Uliako Parkea” barrutiaren Plan Berezia 2012rako egitea, gutxi-gora.behera 3,45 Km karratuko azalera barnebiltzen duena.

**II.2.2.21. Moción de control que presenta el Grupo EH BILDU, sobre el arbolado de la calle y monte Ulia.**

“Axier Jaka Goikoetxea, concejal del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción, para su tratamiento en el Pleno. Esta moción es consecuencia de la interpelación sobre la tala y reposición del arbolado, substanciada en la Comisión de Espacio Público del 10 de abril de 2017, y de la interpelación sobre la información y la reunión del Plan Especial de Ulía, substanciada en la Comisión de Planificación del Territorio del 19 de junio de 2017.

JUSTIFICACIÓN

El Plan General de Ordenación Urbana (PGOU) aprobado por el Pleno Municipal en 2010 establece que el Plan Especial del área del “Parque de Ulía”, definido como Parque Rural (F.20) y con una superficie aproximada de 3,45 $Km^2$, debía estar finalizado para el

Zentzu honetan, aurreko legegintzalditik, Ingurumen eta Hirigintza departamenduek, bai teknikoki bai politikoki, eskuz esku Plan Bereziaren idazketari ekin zioten.

2012. Para ello, en la legislatura anterior, los departamentos de Medio Ambiente y Urbanismo abordaron, de forma conjunta, tanto en el plano técnico como en el político, la labor de redacción del Plan Especial.

Legegintzaldi honetan, udal taldeek batzordetan hamaika aldiz galdetu eta interpelatu dugu Plan Berezi honen onarpenaren inguruan. Udal-gobernutik hasieratik erantzun zitzaigun prestutasuna zuela Uliaren ordenazio eta babeserako dokumentu honen idazketa amaitzeko.

Posteriormente, ya en la presente legislatura, los grupos municipales hemos presentado, en numerosas ocasiones, diversas preguntas e interpelaciones sobre la aprobación de este plan especial. Desde el principio, el Gobierno Municipal nos respondió que su intención era acabar de redactar este documento para la ordenación y protección de Ulía.

Horiek horrela, 2016ko uztaileko udalbatzarren, Ekologiako zinegotziak esan zuen Plan Berezi honen onarpena 2016ko iraila-urrirako izango zela. Epe hori pasata, 2016ko azaroko batzordeetan adierazi zitzaigun Donostialdeko Lurralde Zatitako Planaren onarpena dela eta, Uliako Plan Berezia baldintzatuta gelditzen zela eta agian Pasaiako Udalarekin bertako itsasadar edo bokaren ordenazioa adostu beharko zela, horrek eragin zezakeen atzerapenarekin. Zentzu honetan, azaldu zen barne kontsulta juridiko bat abiatua zuela Udal-gobernuak zalantza hori argitzeko. Urte bereko abenduan adierazi zitzaigun kontsulta juridikoa Udalean argitu beharrean, Eusko Jaurlaritzari aste horretan bertan bideratuko zitzaiola, Plan Berezia praktikoki amaituta zegoela adieraziz eta erantzuna jaso bezain laster informatuko zitzaigula.

En el pleno de julio del 2016, el concejal de Ecología nos comunicó que el plan se aprobaría en septiembre u octubre. Transcurrido dicho plazo, en las comisiones de noviembre del 2016, se nos dijo que, debido a la aprobación del Plan Parcial Territorial de Donostialdea, el Plan Especial de Ulía quedaba condicionado y que quizá debería llegarse a un acuerdo con el Ayuntamiento de Pasajes sobre la ordenación de la boca de la ría situada en esa localidad, con la demora que eso podría conllevar. En este sentido, se nos explicó que el Gobierno Municipal había puesto en marcha una consulta jurídica interna para aclarar esta cuestión. En diciembre del 2016, se nos informó de que la consulta jurídica, en lugar de dilucidarla en el Ayuntamiento, se haría llegar al Gobierno Vasco esa misma semana. Así mismo, se nos dijo que el Plan Especial estaba prácticamente terminado y que nos informarían en cuanto recibieran alguna respuesta.

2017ko urtarrileko batzordeetan galdera eginda, ordea, erantzun zitzaigun Eusko Jaurlaritzari ez zitzaiola inolako kontsultarik luzatu eta Udalean barne desadostasunak zeudela Plan hau onartzeko; argitu ez zaigun arren zein motatako

Sin embargo, cuando preguntamos en las comisiones de enero del 2017, se nos respondió que no se había hecho ninguna consulta al Gobierno Vasco y que, dentro del Ayuntamiento, existen desacuerdos internos

desadostasunak ziren.

Horiek horrela, Udal-gobernuak Udalbatzako taldeekin ez zuela garbi jokatu ikusita eta ez zitzaigula zintzotasunez informatu iritzita, gardentasuna eta ingurumen-babesa helburu, 2017ko urtarrilean ondokoa zioen kontrol mozioa onartu zen aho batez:

1. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio lehenbailehen konpondu ditzala barne desadostasunak Uliako Parkea barrutiaren Plan Bereziaren idazketa amaitzeko; Europarengandik Kontserbazio Bereziko Eremu izendatua izan den hiriko gune berde honek dagokion babesa izan dezan eta Donostiako Hiri Antolamendurako Plan Orokorrak agintzen duena bete dadin.

2017ko apirileko udalbatzarrera berriro ere, Irabaziren eskutik oraingoan, Plan Bereziaren onarpena eskatu zen eta bertan erantzun zen Udal-gobernutik soilik xehetasun txiki batzuen faltan zela dokumentua. Zentzu horretan, 2017ko maiatzeko batzordeetan, Uliako Plan Bereziaren izapidearen egoeraren inguruko agerraldia eskatu genuen eta, besteak beste, ondoko gaiei buruz galdetu genuen:

1- Zein izapide egoeran dagoen oro har Uliako Plan Berezia (dokumentuak, txostenak, epeak...)
2- Zein egoeratan dauden zehazki ondorengo dokumentuak:
B- Diagnostikoa
C- Ingurumen Ebaluazio Estrategikoa
E- Balorazio eta sostengarritasun Ekonomikoa

con respecto a la aprobación de este plan, aunque no se nos ha explicado qué tipo de desacuerdos son.

Visto que el Gobierno Municipal no había actuado debidamente con los grupos del Pleno, y considerando que no se nos había informado con honestidad, en enero del 2017, teniendo como objetivo la transparencia y la protección medioambiental, se aprobó, por unanimidad, la siguiente moción de control:

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián solicita al Gobierno Municipal que resuelva inmediatamente sus desacuerdos internos para poder finalizar la redacción del Plan Especial del Parque de Ulía; que esta zona verde de la ciudad, designada por Europa como Zona de Especial Conservación, cuente con la protección que le corresponde y que se cumpla lo dispuesto en el Plan General de Ordenación Urbana de San Sebastián.

Nuevamente, en el pleno de abril del 2017, en esta ocasión de la mano de Irabazi, se solicitó la aprobación del Plan Especial, a lo que el Gobierno Municipal respondió que sólo faltaban unos pequeños detalles en el documento. En este sentido, en las comisiones de mayo del 2017, solicitamos una comparecencia sobre el estado de tramitación del Plan Especial de Ulía. Entre otras cuestiones, formulamos las siguientes preguntas:

*1.- El estado de tramitación del Plan Especial de Ulía, en general (documentos, informes, plazos…)*
*2- El estado de los siguientes documentos, en concreto:*
*B- Diagnóstico*
*C- Evaluación Ambiental Estratégica*
*R- Valoración y Sostenibilidad Económica*

F- Ordenazioa Arauak
G- Eraikitako Ondarea
3- Pasaiako bokaren ordenazioa adostu den Pasaiako Udalarekin

4- Partaidetzaren trataera: Ingurumen eta Planeamenduko Kontseilu Sektorialak

*F- Normas de Ordenación*
*G- Patrimonio Construido*
*3.- La situación del acuerdo que se pretende alcanzar con el Ayuntamiento de Pasajes sobre la ordenación de la boca de Pasajes.*
*4- Tratamiento de la participación: Consejos Sectoriales de Medio Ambiente y Planeamiento*

Agerraldian, erantzun zitzaigun Plan Bereziaren dokumentua azkenik bazegoela, oso konplikatua izan zela berau amaitzea eta berehala taldeoi informazio CD formatuan pasako zitzaigula. Azkenik, adierazi zitzaigun aste horretan bertan bilera bat eskatuko zitzaiola Pasaiako Udalari Plan Bereziaren dokumentua elkarbanatzeko eta adostasunera ailegatzeko, eta bilera horretaz ere informatuko zitzaigula; behar bazen, aurrez aurre ere.

En la comparecencia, se nos respondió que finalmente ya habían acabado el documento del Plan Especial, que resultó muy complicado concluirlo y que, en breve, se nos remitiría a todos los grupos en formato CD. Por último, se nos indicó que esa misma semana solicitarían una reunión al Ayuntamiento de Pasajes para compartir el documento del Plan Especial y alcanzar un acuerdo. Así mismo, se nos comunicó que se nos informaría de lo acontecido en dicha reunión, incluso, si fuera preciso, en persona.

Ekainaren 19ko batzordeen aurretik, Plan Bereziaren zenbait fitxa eta plano bidali zitzaizkigun eta batzordean bertan erantzun zitzaigun Diagnostikoa eta Ordenazio Arauak ia amaituta zeudela eta aste honetan bidaliko zitzaizkigula. Ez bata ez bestea, ordea, ez zaigu helarazi. Horrez gain, Pasaiako Udalarekin ez zirela elkartu oraindik esan zitzaigun, baina berehala bilera egitekotan zeudela eta, edozein kasutan, Pasaiaren aldetik ez zutela elkarlana egiteko borondaterik aurreikusten.

Antes de las comisiones del 19 de junio, recibimos varias fichas y planos del Plan Especial, y en comisión se nos contestó que el Diagnóstico y las Normas de Ordenación ya casi estaban finalizados y que nos los remitirían esa misma semana. Sin embargo, no hemos recibido ninguno de los dos documentos. Además, se nos contestó que todavía no se habían reunido con el Ayuntamiento de Pasajes, pero que dicha reunión la iban a celebrar en breve, y que, en cualquier caso, no preveían ninguna voluntad de colaboración por parte del Ayuntamiento de Pasajes.

Gure aldetik, erantzun genuen aurkakotasun juridikorik egon ezean, ez zezatela Pasaiarekiko elkarlan falta erabili Plan Berezia atzeratzeko hamaikagarren aitzakia gisa. Gainera, gogorarazi behar dugu 2010eko H.A.P.O.ak Uliako Plan Berezia natur-babes helburuekin

Nuestro grupo respondió que, si no había impedimento jurídico alguno, dicha falta de colaboración no fuera utilizada como la enésima excusa para retrasar la aprobación del Plan Especial. Además, no podemos olvidar que el PGOU de 2010 obliga a aprobar

onartzera behartzen duela; Ulia 2013tik Kontserbazio Bereziko Eremua (ZEC) izendatua izan dela Europar Batasunaren eta Eusko Jaurlaritzaren aldetik eta Udalbatzako taldeok 2015eko azaroan, 2016ko uztailean, 2016ko azaroan eta 2017ko urtarrilean eta apirilean ere, hainbat kontrol mozioren bidez, babes eta ordenazio dokumentuaren onarpena eskatu dugula.

el Plan Especial de Ulía teniendo en cuenta el objetivo de protección de la naturaleza; que Ulía fue designada en 2013 como Zona Especial de Conservación por la Unión Europea y por el Gobierno Vasco, y que los grupos municipales, en noviembre de 2015, en julio de 2016 y en noviembre del mismo año, solicitamos en el Pleno, mediante varias mociones, la aprobación del documento de protección y ordenación.

Era berean, uste dugu Uliako Plan Bereziarekin bi urteotan gertatutakoa Udal-gobernu honek Donostiako balio naturalekiko duen trataeraren erakusle dela eta, zentzu horretan, nahiz eta HAPOak babestu, bioaniztasun eta gune naturalen babesean lehentasun eta irmotasun falta dagoela, beste interes batzuen alde. Ulertuta ere lizitazioan atzerapena, egoeraren adierazgarria da, adibidez, gaur gaurkoz Donostiako hamasei auzotako kaleetako zuhaiztirako 406 txorko hutsik daudela eta oraindik ere ez dela zuhaitz horien ber-landaketa egin.

Asimismo, creemos que lo que ha ocurrido en estos dos años con el Plan Especial de Ulía es indicador del tratamiento que este Gobierno Municipal da a los valores naturales de San Sebastián. En este sentido, consideramos que, aunque estén protegidos por el PGOU, existe falta de prioridad y de firmeza en lo que respecta a la protección de la biodiversidad y de los espacios naturales, en favor de otros intereses. Aun entendiendo esta demora en la licitación, es indicativo de esta situación, entre otros, el hecho de que hoy todavía permanecen vacíos 406 alcorques para arbolado de las calles de los dieciséis barrios de San Sebastián y que todavía no se ha procedido a su replantado.

Horiek horrela, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

Por todo lo anteriormente expuesto, el concejal abajo firmante presenta la siguiente

KONTROL MOZIOA:

MOCIÓN DE CONTROL:

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, kontrakotasun juridikorik egon ezean, atzerapen gehiagorik gabe onar dezala lehenbailehen Uliako Plan Bereziaren proiektua eta partaidetzaz aurkez dezala dagozkion kontseilu sektorialetan, herritarren barreiatzerako gune natural honek dagokion babes eta ordenazioa izan dezan.

1.- El Pleno insta al Gobierno Municipal a que, si no hay impedimento jurídico alguno, apruebe, sin más dilación, el proyecto del Plan Especial de Ulía, y que dicho proyecto sea presentado, de forma participativa, en los correspondientes consejos sectoriales, para que este espacio natural de esparcimiento de la ciudadanía cuente con la protección y la ordenación que le corresponde.

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, udalerriko H.A.P.O. eta ingurumen-babes sailkapenen betekizunean, Donostiako gune, balio eta habitat naturalak, erreka-errekasto eta zuhaiztiak kontserbatu eta euren babes-mailak betearazi ditzala.

2.- El Pleno insta al Gobierno Municipal a que, en cumplimiento del PGOU del municipio y de las clasificaciones de protección ambiental, conserve los espacios, valores y hábitats naturales, los arroyos y regatas y el arbolado de San Sebastián, y que haga cumplir los niveles de protección que dichos elementos tienen asignados.

3.-Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari kaleko txorkoetan falta diren zuhaitz guztiak ber-landatu ditzala eta ez dezala gaur egun hutsik dauden txorkoak zementatzen jarraitu, ingurumenaz gain, herritarrek orain arte Donostiak izan duen kaleko zuhaiztiaz gozatzen jarrai dezaten.

3.- El Pleno insta al Gobierno Municipal a que acometa el replantado de los árboles que faltan en los alcorques de la calle y que no continúe con la cementación de los alcorques vacíos, para que, además de proteger el medio ambiente, la ciudadanía pueda continuar disfrutando del arbolado que San Sebastián ha tenido hasta ahora.

Donostian, 2017ko ekainaren 23a

En San Sebastián, a 23 de junio de 2017.

Axier Jaka Goikoetxea
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Axier Jaka Goikoetxea,
Concejal del grupo municipal EH BILDU."

Eztabaida hasita, Axier Jaka Goikoetxea jaunak, Loïc Alejandro jaunak eta Enrique Ramos Vispo jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. Axier Jaka Goikoetxea, D. Loïc Alejandro y D. Enrique Ramos Vispo, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 3 – PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 3 – PP.**

---------------

**II.2.2.22. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, Bidebieta eta Herrerako aparkaleku beharrak direla-eta.**

“Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2017ko maiatzaren 15ean Gune Publikoen eta Obra eta Hiri Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2016ko aurrekontuen eztabaidaren baitan talde honek eduki ekonomikorik gabeko zuzenketa bat aurkeztu zuen. Berau adostu ondoren, honela zioen Udalbatzak onartu zuenak: “Bidebieta eta Herrerako aparkaleku beharrak: adostea erakunde eskudunekin -batez ere, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Pasaiako Udala- Herrera aldean aparkalekuak egoteko bermea, Pasaialdea bere onera ekartzeko lanen barruan, gaur egun ibilgailuak aparkatzeko toki nahikorik ez egoteak eragiten duen arazoa konpontzeko”.

Erabakia hartu zenetik hamasei hilabete egin ondoren, apirilean, gauzatzearen berririk ez zegoenez, alkate jaunari galdera egin genion, ea zein kudeaketa eginda zeuden mozioa betetzeari begira; alegia, ea zeintzuk ziren horien emaitzak eta zer beste aurreikuspen zegoen. Mugikortasuneko zinegotzi ordezkariak galdera horiek erantzun ordez, zonaldea hobetu dela esan zuen eta berritasun bakarra portuko plana zela zioen. Haatik, ez

**II.2.2.22. Moción de control que presenta el Grupo EH BILDU, sobre las necesidades de aparcamiento en Bidebieta y Herrera.**

“Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, somete la siguiente moción a la consideración del mismo. Esta moción es consecuencia de la interpelación analizada en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos el 15 de mayo de 2017.

JUSTIFICACIÓN

En el debate de los presupuestos de 2016, este grupo presentó una enmienda sin contenido económico que, una vez consensuada, fue aprobada por el Pleno con esta redacción: “Necesidades de aparcamiento en Bidebieta y La Herrera: Acordar con las instituciones competentes, y, en particular, con la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de Pasaia que en el marco de la regeneración de Pasaialdea se garanticen, en la zona de La Herrera, espacios de aparcamiento, que den solución a la problemática actual por la falta de lugares de estacionamiento para los vehículos”.

El pasado mes de abril, transcurridos 16 meses desde que se adoptara el acuerdo, no había noticia alguna sobre su ejecución, por lo que preguntamos al alcalde qué gestiones había realizado de cara al cumplimiento de la moción, es decir, qué resultados se habían obtenido y qué previsiones existían. La concejala delegada de Movilidad, en lugar de responder a nuestras preguntas, dijo que la zona había mejorado y que la única novedad era el plan del puerto. Sin

zuen azaldu Pasaiako Portu Agintaritzak Donostiako Udalari ezezkoa eman ziola, txosten negatiboa duela urte erdikoa izan arren.

Gauzak horrela, maiatzean, alegazioak baztertu izan direneko informazio hori gure kabuz eskuratu ondoren, gaiari zein irtenbide emango zaion itaundu genuen, epe edo plangintzen aurreikuspenak inoiz baino beharrezkoagoak izango direlakoan. Zinegotzi ordezkariak ez zuen inongo konpromisorik hartu nahi izan, Udal Gobernuaren programaren 41. orrian konpromiso zehatza iragarri arren: “Mugikortasun pribatuari dagokionez, aparkatzeko zailtasunak dituzten auzoetan (Altzan, Herreran eta Bidebietan) aparkaleku berriak egiteko guneak bilatuko ditugu, partida ekonomikoek ahalbidetzen duten neurrian”. Soilik 2015 eta 2016 ekitaldien exekuzioan izandako soberakina kontuan hartuta (gutxi gorabehera, 8 milioi eurokoa), ez dirudi egoera ekonomikoa oztopoa denik. Ondorioz, egitasmo honi noiz eta nola helduko dion zehazteko unean gaude, Udalbatzak erabakia hartu zuenetik 18 hilabete pasa direnez gero.

Horiek horrela, hauxe da gure MOZIOA:

1.-Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari, 2015eko abenduaren 22ko Udalbatzaren erabakiak agintzen duena betetzerakoan (“adostea erakunde eskudunekin -batez ere, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Pasaiako Udala- Herrera aldean aparkalekuak egoteko bermea, Pasaialdea bere onera ekartzeko lanen barruan, gaur egun ibilgailuak aparkatzeko toki nahikorik ez egoteak eragiten duen arazoa konpontzeko”), zehatz ditzala

embargo, no explicó que la Autoridad del Puerto de Pasaia había dicho que no al Ayuntamiento de Donostia, que tiene informe negativo a pesar de no tener más de seis meses.

En su vista, y tras obtener por nuestra cuenta la información de que se habían rechazado las alegaciones, interpelamos sobre la solución que se le va a dar al tema, considerando que los plazos o las previsiones de planificación serán más necesarias que nunca. No obstante, la concejala delegada no ha querido adoptar ningún compromiso, aún a pesar de que en la página 41 del programa de gobierno municipal se recoge, claramente, el siguiente: “Respecto a la movilidad privada, buscaremos los espacios para ejecutar nuevos aparcamientos en barrios con dificultades de aparcamiento como son Altza, Herrera y Bidebieta en cuanto las partidas económicas, lo permitan”. Así, teniendo en cuenta únicamente los remanentes de la ejecución de los ejercicios de 2015 y 2016 (8 millones de euros, aproximadamente), no parece que la situación económica suponga ningún obstáculo para ello. Por tanto, entendemos que hemos llegado al momento de definir cuándo y cómo se va a abordar este proyecto, ya que han transcurrido 18 meses desde que el Pleno adoptara este acuerdo.

Es por ello por lo que presentamos la siguiente MOCIÓN:

1.- El Ayuntamiento Pleno solicita al Gobierno Municipal que a la hora de cumplir el acuerdo plenario de 22 de diciembre de 2015 (“Acordar con las instituciones competentes, y, en particular, con la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de Pasaia que en el marco de la regeneración de Pasaialdea se garanticen, en la zona de La Herrera, espacios de aparcamiento, que den solución a la problemática actual por la falta de lugares de

aztertu dituen aukerak, eta aukera horiek jaso dituzten emaitzak ezagutzera eman ditzala udal taldeen zein herritarren artean.

estacionamiento para los vehículos") concrete las alternativas barajadas y dé a conocer tanto a los grupos municipales como a la ciudadanía los resultados obtenidos por las mismas.

2.-Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari, 2015eko abenduaren 22ko Udalbatzaren erabakiak agintzen duena ("adostea erakunde eskudunekin -batez ere, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Pasaiako Udala- Herrera aldean aparkalekuak egoteko bermea, Pasaialdea bere onera ekartzeko lanen barruan, gaur egun ibilgailuak aparkatzeko toki nahikorik ez egoteak eragiten duen arazoa konpontzeko") bere horretan betetzea ezina bada, zehatz dezala zein alternatiba bideratuko duen eta zein epetan, erabakiaren betekizunean.

2.- El Ayuntamiento Pleno solicita al Gobierno Municipal que, si no es posible cumplir el acuerdo plenario de 22 de diciembre de 2015 ("Acordar con las instituciones competentes, y, en particular, con la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de Pasaia que en el marco de la regeneración de Pasaialdea se garanticen, en la zona de La Herrera, espacios de aparcamiento, que den solución a la problemática actual por la falta de lugares de estacionamiento para los vehículos") tal y como se acordó, defina qué alternativa y en qué plazo pondrá en marcha en aras a cumplir el citado acuerdo.

Donostian, 2017ko ekainaren 23an

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH Bildu udal taldeko zinegotzia."

En Donostia, a 23 de junio de 2017.

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga,
Concejala del grupo municipal EH Bildu."

Eztabaida hasita, Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak, Loïc Alejandro jaunak eta Pilar Arana Perez andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as Dª. Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, D. Loïc Alejandro y Dª. Pilar Arana Pérez, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2.2.23. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, Herrerako biziberritze beharrak direla-eta.**

“Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2017ko ekainaren 19an Gune Publikoen eta Obra eta Hiri Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2016ko azaroaren 24an, Donostiako Udalbatzak jarraian zerrendatuko ditugun erabakiak hartu zituen, Herrera biziberritzeko beharra dela-eta eztabaidagai izan zen mozio arruntaren ondorioz, eta adostu ziren edukiak kontuan hartuta:

“1.-Donostiako Udalbatzak eskatzen die erakunde inplikatuei, hau da, Eusko Jaurlaritzari, Portuko Agintaritzari, Foru Aldundiari eta dagokien udalei aurrerantzean ere jarrai dezatela bizilagunekin batera lanean Herrera biziberritzeko erakunde arteko lana sustatzeko.

2.-Donostiako Udalbatzak eskumena duten erakundeei eskatzen die jarrai dezatela Herrera osoki biziberritzeko prozesuan sartzen alde horretan dauden beharrak, auzokoen eskaerak –hala nola kirol instalazioen gainekoa– aintzat hartuz.

**II.2.2.23. Moción de control que presenta el Grupo EH BILDU, sobre las necesidades de revitalizar Herrera.**

“Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, somete la siguiente moción a la consideración del mismo. Esta moción es consecuencia de la interpelación analizada en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos el 19 de junio de 2017.

JUSTIFICACIÓN

El 24 de noviembre de 2016, el Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián adoptó los acuerdos que se relacionan a continuación, como consecuencia del debate de una moción ordinaria relativa a la necesidad de regeneración de Herrera:

“1.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián solicita a las instituciones implicadas, Gobierno Vasco, Autoridad Portuaria, Diputación Foral y Ayuntamientos implicados que, en colaboración con los vecinos afectados, continúen impulsando el trabajo interinstitucional de regeneración de la Herrera.

2.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián solicita a las instituciones competentes que continúen integrando en el proceso de regeneración global de la Herrera las distintas necesidades de la zona, atendiendo las demandas existentes en el barrio, como son las de las instalaciones deportivas de la misma.

3.-Donostiako Udalbatzaren Osoko Bilkurak eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiari, eta bereziki, Bide Azpiegituren Foru Departamentuari, Ingurubidearen sarrera-irteeren ondorioz, Elosegi alkatearen hiribidearen bukaera aldera, 120 eta 125 zenbakien bitartean dauden bi zuloak estaltzeko egitasmoari ekin diezaion, eta horretarako proiektua enkargatu eta dagokion aurrekontuak aurreikus ditzan.

4.-Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die Gipuzkoako Foru Aldundiari, Eusko Jaurlaritzari eta Pasaiako Portuko Agintaritzari Herrera eta Trintxerpe oinezkoentzat lotzerakoan ez dezatela pertsonen segurtasunerako puntu kritikorik sortu."

Martxoaren 20an azaldutakoaren betekizuna zertan zen galdetuta, eman zitzaizkigun azalpenek Udal Gobernua lanean ari zela adierazten zuten, baina guztiz azalpen orokorrak jaso genituen:

1. Lana bizilagunekin batera egiten ari ote den ez zen argitu. Eta badakigu ez dela hala egin, Udalari dagokionez.

2. Auzokoen eskaerak aztertzen ari omen dira, baina Gipuzkoako Foru Aldundiak agindu zuen egitasmoa (bota zuten frontoiari zegokiona) oraindik agertu ere ez da egin

3. Garbiketa eta txukunketa eginak zirela agertu zuen zinegotzi ordezkariak, eta Azpiegituren Foru diputatuak oso argi utzi duela zuloak ez direla estaliko. Interpelazioa aurkeztu genuen

3.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián solicita a la Diputación Foral de Gipuzkoa y en especial al Departamento Foral de Infraestructuras Viarias que ponga en marcha el proyecto para cubrir los dos agujeros surgidos entre los números 120 y 125 de la avenida del Alcalde Jose Elosegi durante las obras de construcción de las salidas y entradas de la circunvalación. Asimismo, solicita que encargue el proyecto y prevea los presupuestos necesarios.

4.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta a la Diputación Foral de Gipuzkoa, al Gobierno Vasco y a la Autoridad Portuaria del Puerto de Pasaia a que la conexión peatonal entre Herrera y Trintxerpe no suponga la creación de nuevos puntos críticos para la seguridad de las personas".

El 20 de marzo, preguntando sobre el estado del cumplimiento de lo arriba expuesto, las explicaciones que se nos dieron al respecto señalaban que el Gobierno Municipal estaba trabajando en ello, siendo las explicaciones que recibimos al respecto completamente generales, concretamente:

1. No se nos ha aclarado si el trabajo se está realizando en colaboración con los vecinos y vecinas, si bien nos consta que, en lo que al Ayuntamiento se refiere, no ha sido así.

2. Al parecer, se están analizando las solicitudes de los vecinos y vecinas, pero la iniciativa encomendada por la Diputación Foral de Gipuzkoa (relativa al frontón demolido) todavía no ha hecho ni aparecer.

3. El concejal delegado manifestó que las labores de limpieza y acondicionamiento estaban realizadas, y que la Diputada Foral de Infraestructuras Viarias ha dejado muy claro

aste berean oraindik txukunketa lanetan ari zirela alde batera utzita, larria da Udalbatzak hartu duen erabaki baten aurrean ezezko borobila jaso eta ezertan ez geratzea.

que no se van a tapar los agujeros. Dejando de lado el hecho de que la misma semana en que presentamos la interpelación todavía se estaban realizando las labores de acondicionamiento, es grave que un acuerdo plenario reciba un no rotundo y la cuestión caiga en saco roto.

4. Puntu kritikoen ezabaketa helburu konpartitu eta inportantea da Donostiako Udalean, dirua eta baliabide asko inbertitu dira lehendik zeudenak ezabatzen, eta beraz, ez da onargarria egitasmo berrietan trataera egokiak ez aurreikustea. Zinegotzi ordezkariak kezka honen trasladoa emana zegoela aipatu zuen, baina fintzeko falta zela. Izan ere, jakin dugunaren arabera, eraikiko den loturaren aldapak, irisgarritasun baldintzak ez betetzeaz gain, puntu kritikoen ezabaketa ziurtatu duenik ez dago bat ere argi.

4. La eliminación de puntos críticos es un objetivo compartido y transcendental para el Ayuntamiento de San Sebastián, pues se ha invertido mucho dinero y recursos para eliminar aquellos que ya existían de antemano y, por lo tanto, es inaceptable que en las nuevas iniciativas no se prevean tratamientos adecuados. El concejal delegado mentó que ya se había dado traslado de esta cuestión pero que faltaba afinarla, ya que, según lo que hemos podido saber, la pendiente de la conexión que se va a construir, además de incumplir las condiciones de accesibilidad, no está nada claro que asegure la eliminación de los puntos críticos.

Hedabideen bidez jakin genuen Eusko Jaurlaritza eta Pasaiako Portuko Agintaritzaren artean adosturiko plana hastekotan dagoela, urari dagokion Donostiako Udalaren baimen baten faltan. Beraz, Donostiako Udalak ongi ezagutu behar du egitasmoaren inguruko guztia, eta ea egitasmo horrek bere baitan jasoko dituen Udalbatzak hartu zituen erabakiak. Informazioak bat ez zetozenez, alkate jaunari interpelazioa luzatu genion ekainaren 19an. Batzordean, Hirigintza Sostengagarriko eta Hiri Proiektuetako zinegotzi ordezkariak erantzuteko aukera izan ez zuela, eta beste berririk gabe, Udalbatzak 2016ko azaroaren 24an hartu zituen erabakiak betetzeko beharraz neurri berriak hartzea ezinbestekoa da.

Recientemente hemos sabido a través de los medios de comunicación de que está a punto de ponerse en marcha el plan acordado entre el Gobierno Vasco y la Autoridad Portuaria de Pasaia, a falta de que el Ayuntamiento de San Sebastián dé autorización en materia de aguas. Por consiguiente, el Ayuntamiento de San Sebastián debe estar al tanto de todo lo referente a esta iniciativa, y de si ésta comprenderá los acuerdos adoptados por el Pleno. Visto que las informaciones no concordaban, el 19 de junio interpusimos una interpelación al señor alcalde. No teniendo ocasión el concejal delegado de Urbanismo Sostenible, Vivienda y Proyectos de Ciudad de dar respuesta en la Comisión, y sin más noticias al respecto, resulta imprescindible tomar nuevas medidas para dar cumplimiento a los acuerdos adoptados por el Pleno del

Ayuntamiento el 24 de noviembre de 2016.

Horiek horrela, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkezten duen MOZIOA:

Es por ello que la concejala que suscribe presenta la siguiente MOCIÓN

1,-Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari, “Herrerako Biziberritze beharrak direla-eta”, 2016ko azaroaren 24ko Udalbatzaren erabakiak agintzen duena betetzeari begira (1., 2. eta 4. puntuei dagokienez), zehatz ditzala egin dituen kudeaketak, eta kudeaketa horiek jaso dituzten emaitzak ezagutzera eman ditzala udal taldeen zein herritarren artean.

1.- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal, con vistas a dar cumplimiento a lo establecido por el acuerdo plenario de 24 de noviembre de 2016 relativo a las "necesidades de regeneración de Herrera" (en relación a lo establecido en los puntos 1, 2 y 4) a que concrete qué gestiones ha realizado, y a que dé a conocer los resultados de las mismas, tanto a los grupos municipales como a la ciudadanía.

2,-Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari, “Herrerako Biziberritze beharrak direla-eta”, 2016ko azaroaren 24ko Udalbatzaren erabakiak agintzen duena (1., 2. eta 4. puntuei dagokienez) betetzea ezina bada zehatz dezala zein alternatiba bideratuko duen eta zein epetan, erabakiaren betekizuna gauzatze aldera, eta planteamendu horiek ezagutzera eman ditzala udal taldeen zein herritarren artean.

2.- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a que, en caso de que no haya sido posible dar cumplimiento a lo establecido por el acuerdo plenario de 24 de noviembre de 2016 relativo a las "necesidades de regeneración de Herrera" (en relación a lo establecido en los puntos 1, 2 y 4), concrete a qué alternativas va dar curso y en qué plazos, a fin de dar cumplimiento a lo establecido en tal acuerdo, y a que dé a conocer los resultados de las mismas, tanto entre los grupos municipales como entre la ciudadanía.

3,-Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari, 2016ko azaroaren 24ko Udalbatzaren erabakiak 3. puntuari dagokionez agintzen duena betetzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiaren partetik jaso duen ezezkoaren aurrean, zehatz dezala zein alternatiba bideratuko duen eta zein epetan, eta planteamendu horiek ezagutzera eman ditzala udal taldeen zein herritarren artean.

3.- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a que, ante la negativa de la Diputación Foral de Gipuzkoa de dar cumplimiento a lo establecido en el punto 3 del acuerdo plenario del 24 de noviembre de 2016, concrete a qué alternativas va a dar curso y en qué plazos, y a que dé a conocer los resultados de las mismas, tanto entre los grupos municipales como entre la ciudadanía.

Donostian, 2017ko ekainaren 23an

En San Sebastián, a 23 de junio de 2017

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”.

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
Concejala del grupo municipal EH Bildu”.

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto la señora Dª. Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.2.24. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak egina, Ekonomia Sustatzeko Planari Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako diru laguntzen ingurukoa.**

"Josu Mirena Ruiz Martinek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikuluak ematen dion aukera baliatuz, Ekonomia Sustatzeko Planari Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako diru laguntzen inguruko MOZIO hau aurkezten du, Osoko Bilkuran azter dadin. Mozio hau Pertsonen Batzordean 2017ko ekainaren 19ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Gipuzkoako Foru Aldundiak, aurten, 27.000 euroko ekarpena egin dio Udalak-Sustapenak aurkeztutako ekonomia sustatzeko planari. Hau da, Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Departamendua, Bilduren gobernuaren azken urtean, 589.716 euroko diru-laguntzatik, eta ezertxo ere ez eman ondoren, 27.000 euroko diru-laguntzara pasatu da. Egoera larri honetan,

**II.2.2.24. Moción de control que presenta el Grupo EH BILDU, sobre las subvenciones concedidas de la Diputación Foral de Gipuzkoa al Plan de Estímulo Económico.**

"Josu Mirena Ruiz Martin, concejal del grupo municipal EH BILDU, al amparo de lo establecido en el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN relativa la subvención concedida por la Diputación Foral de Gipuzkoa al Plan de Estímulo Económico, para que sea tratada en el Pleno. Esta moción es consecuencia de la interpelación realizada en la sesión de la Comisión de Servicios a las Personas del 19 de junio de 2017.

JUSTIFICACIÓN

Este año, la Diputación Foral de Gipuzkoa ha realizado una aportación de 27.000 euros al Plan de Estímulo Económico presentado por el Ayuntamiento y Fomento de San Sebastián. Es decir, el Departamento de Promoción Económica de la Diputación ha pasado de no dar nada, de una subvención de 589.716 euros, durante el último año del gobierno de Bildu, a

Udalbatzak honako mozio hau onartu zuen, EH Bildu udal taldeak aurkeztutakoa: "Donostiako Udalbatzak Alkateari eskatzen dio behingoz gaiari hel diezaiola, lehentasun osoz, eta bi hilabeteko epean Aldundiarekin akordioa itxi dezala, benetako ekarpenak lortuz, Ekonomia sustatzeko plana eraginkorragoa izan dadin."

conceder una subvención de 27.000 euros. Frente a esta grave situación, el Pleno del Ayuntamiento aprobó la siguiente moción presentada por el grupo municipal EH Bildu: “El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián solicita al Alcalde que ataje el tema de una vez por todas, y que cierre el acuerdo con la Diputación en un plazo de dos meses, consiguiendo verdaderas aportaciones, para que el Plan de Estímulo Económico sea más eficaz”.

Harrezkero, alkatearen eta Aldundiko foru diputatuaren arteko ohiko argazkia ikusi genuen hedabideetan, baina emaitzarik gabekoa. Alkatetzan bi urte egon eta gero, kudeaketa negargarri baten aurrean gaude. Kontuan hartuta, batik bat, langabezia dela gure hiritarren kezka nagusietako bat.

Desde entonces, hemos podido ver en los medios de comunicación la típica fotografía entre el alcalde y el diputado foral, pero sin resultados. Tras dos años en la alcaldía, estamos frente a una penosa gestión, máxime si tenemos en cuenta que el paro es una principales causas de preocupación entre nuestra ciudadanía.

EAJk eta PSEk gobernatzeko sinatutako akordioak, hirugarren puntuan ("Berrindartzeko ekonomikorako eta giza garapenerako plana"), honela dio: "Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera sustapen ekonomikorako planak garatzeko bai Donostia mailan bai Gipuzkoa mailan ere".

El acuerdo de gobierno firmado entre el PNV y el PSE recoge lo siguiente en su punto tercero "Plan de Refuerzo Económico y Desarrollo Social”: “Desarrollo de planes de promoción económica junto con la Diputación Foral de Gipuzkoa, tanto a nivel de San Sebastián como de Gipuzkoa”.

Alkateak, batzordean, bi bileraren berri eman eta bi erakundeetako teknikoen elkarlanerako prestasuna agertu zuen. Besterik ez.

En la comisión, el alcalde dio cuenta de las dos reuniones y se mostró dispuesto a colaborar con los técnicos de ambas instituciones. Sin más.

Kudeaketa negargarri hau ikusita, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

Visto lo penoso de la gestión, el concejal abajo firmante presenta la siguiente

MOZIOA

MOCIÓN

1-Donostiako Udalbatzak alkateari eskatzen dio martxoan onartutako mozioa lehenbailehen bete dezala eta lortutako ekarpenak 2017ko sustapen planean txerta daitezela, beste

1.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al alcalde a cumplir cuanto antes la moción aprobada en marzo, y a que introduzca las aportaciones obtenidas dentro del Plan de

urtebete gal ez dadin.

Donostian, 2017ko ekainaren 23an

Josu Mirena Ruiz Martin
EH Bildu udal taldeko zinegotzia"

Estímulo de 2017, para que no se pierda otro año más.

En San Sebastián, a 23 de junio de 2017.

Josu Mirena Ruiz Martin
Concejal del grupo municipal EH Bildu"

Eztabaida hasita, Josu Ruiz Martin jaunak, Miren Albistur Garmendia andreak, Alkate-Udalburuak eta Ernesto Gasco Gonzalo jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Josu Ruiz Martín, Dª. Miren Albistur Garmendia, Alcalde-Presidente y D. Ernesto Gasco Gonzalo, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.2.25. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak egina, Groseko trinketaren egoera eta bizilagunen informazio eskaera dela eta.**

"Olaia Duarte Lópezek, EH Bilduko udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikuluan oinarrituta, Groseko trinketari eta bizilagunen informazio eskaerei buruzko KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Udalbatzan aztertzeko. Interpelazioa mozio baten ondorio da, joan den ekainaren 19an Lurralde Garapen eta Planifikazio Batzordean egindakoarena.

JUSTIFIKAZIOA

**II.2.2.25. Moción de control que presenta el Grupo EH BILDU en relación a la situación del trinquete de Gros y las peticiones de información de los/as vecinos/as.**

"Olaia Duarte López, concejala del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico de Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL para ser tratada en Pleno, en relación a la situación del trinquete de Gros y las peticiones de información de los/as vecinos/as. La moción es consecuencia de la interpelación sustanciada en la Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio del pasado 19 de junio.

JUSTIFICACIÓN

Groseko trinketa Euskal Herrian zutik dauden zaharrenetako bat da, 1884koa baita. Bidasoaren alde honetan, Nafarroako Elizondokoa da soilik harekin alderatzeko modukoa, baina azken hori geroagokoa da (1894).

El trinquete de Gros es uno de los más antiguos de los que quedan en pie en Euskal Herria, pues se documenta en 1884. A este lado del Bidasoa, tan solo puede compararse en antigüedad con el de Elizondo en Navarra, aunque este último es posterior (1894).

Urtarrilean, egunkari batek zioen hiru enpresarik trinketaren instalazioen barruan jatetxe bat irekitzea erabaki zutela, eta haien asmoa Inauteriak baino lehenago inauguratzea zela. Artikulu horretan esaten zen enpresarien asmoa egitura historikoa errespetatzea zela, bai eta 170 pertsonarentzako bi jantoki antolatzea ere: bata beheko solairuan eta bestea goikoan.

En enero un diario informaba de que tres empresarios habían decidido abrir un restaurante dentro de las instalaciones del trinquete, con la idea de inaugurarlo antes de Carnavales. En el mencionado artículo se decía que la idea era respetar la estructura histórica, organizando dos comedores para 170 personas: uno en la parte baja y otro en la alta.

Otsailean, bizilagunen zenbait kexa iristen hasi zitzaizkigun, egiten ari ziren obrei eta obra horietan egon zitezkeen irregulartasunei buruzkoak, eta zinegotzi ordezkariari egoera horren berri eman genion.

En febrero nos empezaron a llegar varias quejas de los/as vecinos/as en relación a las obras que se estaban realizando y a posibles irregularidades, situación de la que informamos al concejal delegado.

Maiatzeko batzordeetan, ordezkariari berriro galdetu genion lokal horren egoerari eta inguru hartako bizilagun elkarteei informaziorik ez emateko arrazoiei buruz. Ordezkariak erantzun zigun lokalak otsailaren 23tik zuela obrak egiteko baimena eta bizilagunekin zeuden arazoak pribatuak zirela. Haren hitzetan, arazoa hau zen: 16. zenbakiko bizilagunek obrak oztopatzen zituztela, larrialdi irteera bat blokeatuz.

En las comisiones de mayo volvimos a preguntar al delegado cuál era la situación de este local y por qué no se estaba facilitando la información a las comunidades de la zona. El delegado respondió que el local contaba con licencia para realizar obras desde el 23 de febrero y que los problemas con vecinos/as eran privados. Según sus palabras, el problema consistía en que los/as vecinos/as del número 16 entorpecían las obras bloqueando una salida de emergencia.

Espedientea aztertzen bada, ikusten da etxejabeen hainbat informazio eskaera daudela behar bezala erantzun gabe 2016ko abendutik aurrera, bai udal erregistroan, bai herritarren iradokizun postontzian. Esate baterako, honako hauek:

Analizando el expediente, podemos observar que hay numerosas peticiones de información por parte de los/as propietarios/as de las viviendas desde diciembre del 2016, tanto por el registro municipal como por el buzón de sugerencias de la ciudadanía, que no han sido atendidas ni respondidas de forma adecuada. Por citar algunos ejemplos:

1. 2016ko abenduaren 27an aurkeztutako idazkia.
2. 2017ko urtarrilaren 11n aurkeztutako idazkia.
3. 2017ko otsailaren 16an aurkeztutako idazkia.
4. 2017ko otsailaren 23an aurkeztutako idazkia.
5. 2017ko martxoaren 6an aurkeztutako idazkia.
6. 2017ko martxoaren 7an aurkeztutako idazkia.
7. Martxoaren 16an aurkeztutako idazkia, 16. zenbakiko bizilagun elkarteak Instrukzio Epaitegian aurkeztutako salaketa barne.
8. Martxoaren 29an aurkeztutako idazkia, zinegotzi ordezkariarekin bilera bat eskatzeko.
9. Maiatzaren 16an aurkeztutako idazkia, 22. zenbakiko bizilagun elkartean baimenik edo lizentziarik gabeko zenbait “tximinia” instalatu direla dioena.
10. Herritarren postontzian maiatzean aurkeztutako kexak.

Bizilagunen bertsioa entzun eta espedientea irakurri ondoren, harrituta geratu gara batzordearen ordezkariak maiatzean emandako erantzunarekin, lokalak otsailaren 23tik obra baimena zuela eta legezko egoeran zegoela ziurtatu baitzuen.

Espedienteko datuen arabera, urtarrilaren 19an bi ke kanpai jartzeko baimena eskatu zen. Eskari horri udal zerbitzuek (suhiltzaileak, Ingurumena…) eta Foru Aldundiak dokumentazio osagarria eskatuz erantzun zioten. Otsailaren 23an eskatzaileei gutun bat bidali zitzaien, aurkeztutako dokumentazioak osatu gabe jarraitzen zuela jakinarazteko. Martxoaren 17an, espedientea bertan behera geratu eta artxibatu egin zen, inolako dokumentaziorik ez aurkezteagatik.

1. Escrito presentado el 27 de diciembre del 2016.
2. Escrito presentado el 11 de enero del 2017.
3. Escrito presentado el 16 de febrero del 2017.
4. Escrito presentado el 23 de febrero del 2017.
5. Escrito presentado el 6 de marzo del 2017.
6. Escrito presentado el 7 de marzo del 2017.
7. Escrito presentado el 16 de marzo, en el que se incluye la denuncia de la comunidad del número 16 en el Juzgado de Instrucción.
8. Escrito presentado el 29 de marzo solicitando una reunión con el concejal delegado.
9. Escrito presentado el 16 de mayo en el que se informa de la instalación de varias “chimeneas” en la comunidad del número 22 sin licencia.
10. Quejas presentadas en el buzón de la ciudadanía a lo largo del mes de mayo.

Tras escuchar la versión de los/as vecinos/as y la lectura del expediente, no podemos sino sorprendernos por la respuesta del delegado en la comisión de mayo, en la que aseguraba que el local contaba con licencia de obras desde el 23 de febrero y que se encuentra en una situación regular.

Según los datos del expediente, el 19 de enero se solicitó licencia para la colocación de dos campanas extractoras. A esta solicitud, los servicios municipales (bomberos, Medio Ambiente...) y la Diputación Foral respondieron con la petición de documentación complementaria. El 23 de febrero se envió a los solicitantes una carta informándoles de que la documentación presentada seguía siendo incompleta. El 17 de marzo se realizó el decaimiento y archivo del expediente por no presentar ninguna documentación.

Espedienteko azken dokumentuetan ikusten denez, ekainaren 7an Udalak eta Foru Aldundiak berriro dokumentazioa eskatu zuten. Hala ere, lokalaren arduradunek uztailaren 1ean inauguratuko dutela iragarri dute.

Ekaineko batzordeetan interpelazioa aurkeztu genion ordezkariari, eta hark lokalak 1991tik jarduera baimena duela besterik ez zuen esan, baina ez zuen inolako azalpenik eman obra baimena ez izateari eta hura gabe lokalean egindako aldaketei buruz. Bizilagunen kexa ugariei zergatik ez dien erantzun ere ez zuen azaldu (kexa horiek ez dira aintzat hartu, eta ez zaie erantzun), eta ez zuen haiekin bilera ez egiteko arrazoirik eman.

Horregatik guztiagatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako KONTROL MOZIO hau aurkezten du:

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio gobernu taldeari agindu diezaiela zerbitzu teknikoei lokala ikuskatzeko, eta agindu diezaiela, halaber, dagokion obra baimenarekin bat etorri gabe gauzatu diren obrak, lokaleko aldaketak eta makina instalazioak aztertzeko.

2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die Hirigintzako, Herri Segurtasuneko eta Babes Zibileko ordezkariei erantzun diezaietela 16. eta 22. zenbakietako elkarteetako bizilagunek hainbatetan egindako bilera eskaerei, eta finka dezatela data bat bilera horretarako.

3. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio gobernu taldeari agindu diezaiela zerbitzu teknikoei egiazta dezatela jarritako eta aurreikusitako larrialdi irteerak segurtasun eta

Los últimos documentos del expediente reflejan que el 7 de junio se volvió a solicitar documentación por parte del Ayuntamiento y de la Diputación Foral. Pese a ello, las personas que regentan el local han anunciado que el 1 de julio lo inaugurarán.

En las comisiones de junio interpelamos al delegado y su respuesta se limitó a decir que el local dispone de licencia de actividad desde 1991. Pero en ningún momento ofreció explicaciones en relación a la falta de licencia de obras y a las modificaciones realizadas en el local sin ella. Tampoco explicó por qué no ha respondido a las numerosas quejas de vecinos y vecinas que no han sido atendidas ni respondidas, ni justificó no haberse reunido con ellos/as.

Por todo ello, es por lo que el concejal que suscribe formula la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al equipo de gobierno a ordenar a los servicios técnicos inspeccionar el local y verificar la ejecución de obras, modificaciones en el local e instalaciones de maquinaria que han sido realizadas sin ajustarse a lo permitido en la licencia de obras correspondiente.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta a los delegados de Urbanismo y de Seguridad Ciudadana y Protección Civil a que respondan a la solicitud de reunión realizada por los vecinos/as de las comunidades 16 y 22 en numerosas ocasiones, fijando una fecha para dicha reunión.

3. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al equipo de gobierno a que ordene a los servicios técnicos verificar que la salida de emergencias establecida y prevista cumple los

irisgarritasun lege betekizunak errespetatzen dituen (mugikortasun murriztua duten pertsonen betekizunak barne).

4. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio gobernu taldeari agindu diezaiela zerbitzu teknikoei egiazta dezatela ea lokalean hartu diren intsonorizazio neurriak gauzatu nahi den ostalaritza jarduera egin ahal izateko egokiak diren.

Donostia, 2017ko ekainaren 23a

Olaia Duarte Lopez,
EH Bildu udal taldeko zinegotzia."

requisitos legales de seguridad y de accesibilidad (incluyendo a las personas de movilidad reducida).

4. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al equipo de gobierno a que ordene a los servicios técnicos verificar que se han tomado las medidas de insonorización adecuadas en el local para el ejercicio de la actividad hostelera que se quiere desempeñar.

En Donostia a 23 de junio del 2017

Olaia Duarte López
Concejala del grupo municipal EH Bildu."

Eztabaida hasita, Olaia Duarte Lopez andreak, Loïc Alejandro jaunak, Enrique Ramos Vispok eta Martin Ibabe Eceiza jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/ra Dª. Olaia Duarte López, D. Loïc Alejandro, D. Enrique Ramos Vispo y D. Martín Ibabe Eceiza, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 3 – PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 3 – PP.**

---------------

**II.2.2.26. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA Taldeak egina, Estatuaren jabetzakoak diren Donostiako eraikinak direla eta.**

**II.2.2.26. Moción de control que presenta el Grupo IRABAZI DONOSTIA sobre edificios propiedad del estado en Donostia.**

"Irabazi Donostia taldearen bozeramaile Amaia Martinek, Udalbatzaren Araudi Organikoan indarrean dagoen 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi du, hilabete honetako ZERBITZU OROKORREN BATZORDEAN Gobernuaren ordezkariordetzaren eraikinari eta Estatuaren jabetzako beste eraikin batzuei buruz egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Joan den abenduan, alkateari batzordean galdetu genion ea zer egoeratan dagoen Amara auzoko Pio XII.aren plazan Gobernuaren ordezkariordetzarena den eraikina, eta ea zer izapide egin dituen udal gobernuak aspaldi lagatako lursail hori berriro Donostiako herritarrontzat izan dadin.

Eraikina Amara auzoko Pio XII.aren plazan dago, joan den mendearen erdialdean Donostiako Udalak Estatuari laga zion lursail batean eraikia, eta gaur egun Gobernuaren ordezkariordetzaren egoitza da.

Alkateak jakinarazi zigunez, Gobernuaren ordezkariordearekin bilera bat egin zuen, eta han azaldu zion egoera eta Udalak eraikina eta lursail osoa berreskuratu nahi dituela. Alkateak batzordean jakinarazi zuenez, halaber, Gobernuaren ordezkariordearen erantzuna ezezko irmoa izan omen zen, arrazoitzat emanez Gobernuak Donostiako hirian eskaini beharreko zerbitzuak eraikin horretan ematen dituela eta une honetan eraikina osorik erabiltzen duela.

Alkateak esan zuen, bestalde, bere gobernuak

"Amaia Martin, Portavoz del Grupo Irabazi Donostia, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, realiza la siguiente MOCIÓN DE CONTROL fruto de la interpelación en la COMISIÓN DE SERVICIOS GENERALES de este mes sobre el edificio de subdelegación del gobierno y otros propiedad del Estado.

JUSTIFICACIÓN

El pasado mes de diciembre, preguntamos al alcalde en comisión sobre la situación del edificio de la subdelegación del gobierno sito en la plaza PIO XII del barrio de Amara y los trámites que el gobierno municipal estaba llevando a cabo para recuperar para la ciudadanía donostiarra el conjunto de la parcela anteriormente cedida.

Este edificio se sitúa en la plaza Pio XII del barrio de Amara sobre un terreno, que fue cedido por el ayuntamiento donostiarra al Estado a mediados del siglo pasado, donde se construyó tal edificio, hoy sede de la subdelegación del Gobierno.

El Alcalde nos informó que había mantenido una entrevista con el subdelegado del gobierno exponiendo la situación y el interés por parte del consistorio en el edificio y en recuperar el conjunto de la parcela. Ante este planteamiento el alcalde informó en comisión que la respuesta del subdelegado del gobierno había sido rotunda negando la posibilidad del mismo, alegando que el edificio permitía cubrir los servicios que el gobierno del Estado debía ofrecer en la ciudad y que en estos momentos estaba dándose un uso completo al mismo.

De igual modo, planteó la intención de su

bazuela asmoa gai honi berriro heltzeko, Estatuko Gobernuarekin hurrena egingo ziren bileretan.

gobierno de volver a trasladar este tema en las futuras reuniones que pudieran desarrollarse con el gobierno del Estado.

Hortik abiatuta, gure taldeak hilabete honetako batzordean galdetu zuen ea helarazi zieten Gobernuaren ordezkariordearekin izandako elkarrizketen berri, formalki, dagozkien zuzendaritzei, eta erantzuna baiezkoa izan zen. Onartu zuten zaila izango zela Estatuko Gobernuak jarrera aldatzea, azken aldian egin izan diren enkanteetan erakutsi dutenez bai baitirudi Estatuko Gobernuak eskaintza onena egiten duenari saltzeko asmoa duela.

A partir de este hecho nuestro grupo planteó en comisión este mes si las conversaciones realizadas con el subdelegado del gobierno igualmente habían sido trasladadas formalmente a las direcciones correspondientes y nos respondieron afirmativamente. Reconocieron la dificultad de que hubiera un cambio de actitud por parte del Gobierno del Estado ya que a la vista de las subastas realizadas en los últimos tiempos demostraban que el gobierno del Estado apuntaba a la venta al mejor postor.

Udal gobernuak jakinarazi zigun, halaber, Estatuaren jabetzako beste eraikin batzuk ere badirela, eta hirirako berreskuratzeko interesa duela.

Igualmente, nos informaron de la existencia e interés de otros posibles edificios del Estado que pudieran revertir a la ciudad.

Horri buruz, alabaina, esan beharrekoa da Gobernuak Donostian duen ordezkariordetzaren eraikinaren egoeraz Kongresuan egindako galdera baten harira, eta Donostiako Udalak hura berreskuratzeko interesa duela aipatuta, Estatuko Ondarearen Zuzendaritza Nagusiak erantzun zuela ez zekiela Donostiako Udalak eraikina berreskuratzeko interesa zuenik.

Sin embargo, queremos señalar que ante una pregunta realizada en el Congreso relativa a la situación del inmueble de la subdelegación del gobierno en Donostia así como del interés del gobierno municipal sobre el mismo, la respuesta recibida desde la Dirección General de Patrimonio había sido la de informar que no tenían constancia del interés del ayuntamiento de Donostia en la reversión del inmueble.

Hori dela eta, kontrol mozio hau aurkezten dugu:

Es por ello, que presentamos la siguiente:

KONTROL MOZIOA

MOCIÓN DE CONTROL

1. Donostiako udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio eska diezaiola Estatuko Ondarearen Zuzendaritza Nagusiari, formalki, itzul dezatela Pio XII.aren plazan gaur egun Gobernuaren ordezkariordetza dagoen eraikina, eta itzul dezatela, halaber, Estatuaren

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a dirigirse formalmente a la Dirección General de Patrimonio del Estado para solicitar la reversión la propiedad del edificio donde se sitúa la Subdelegación del Gobierno en Donostia, plaza

jabetzakoak diren Donostiako beste eraikin batzuk ere, eremu horiek guztiak donostiarrentzat berreskura ditzagun.

Pio XII, así como de plantear la reversión de otros edificios que pudieran ser de titularidad del Estado en la ciudad al objeto de ganar tales espacios para la ciudadanía donostiarra.

Donostia, 2017ko ekainaren 23a

Donostia a 23 de Junio de 2017

Izpta.: Amaia Martin,
Irabazi Donostia udal taldeko zinegotzia."

Fdo.: Amaia Martin
Concejal del Grupo Municipal Irabazi Donostia."

Amaia Martin Garin andreak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto la señora Dª. Amaia Martín Garín, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 22 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (5) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 3 – PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 22 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (5) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 3 – PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2.2.27. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA Taldeak egina, dorre erlojuak mantentzeko lanen kontratua dela eta.**

**II.2.2.27. Moción de control que presenta el Grupo IRABAZI DONOSTIA sobre el contrato de mantenimiento de los relojes torre.**

"Irabazi Donostia taldearen bozeramaile Amaia Martinek, Udalbatzaren Araudi Organikoko 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi du, hilabete honetako OGASUN BATZORDEAN Donostiako dorre erlojuak mantentzeko lanen kontratuari buruz egindako interpelazioa dela eta.

"Amaia Martin, Portavoz del Grupo Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta siguiente MOCIÓN DE CONTROL en relación a la interpelación en la comisión de hacienda del presente mes, relativa al contrato de mantenimiento de los relojes torre de la ciudad.

JUSTIFIKAZIOA

Hilaren 19ko batzordean azaldu genuen bezala, joan den apirilean, Gobernu Batzarrak erabaki zuen hiriko dorre erlojuak mantendu, zaindu eta aldizka aztertzeko lanak egiteko kontratua esleitzea, urtebeterako, beste urte batez luzagarria, urteko 57.800 €-ren truke.

Lehiaketaren baldintza agirian zehazten denez, eman beharreko zerbitzua aldizka aztertzea, mantentzea eta zaintzea da, bai Donostiako dorre erloju guztiak, bai eta haiekin lotutako soinu mekanismo eta gailu guztiak, jada instalatuta daudenak nahiz kontratuak dirauen bitartean instala daitezkeenak, jabetza publikoko eraikinetan nahiz jabetza pribatukoetan. Administrazio baldintzen agirian zehazten denez, sartuta dauden 23 erlojuetatik 11 Elizaren jabetzako eraikinetan daude, eta ez dakigu zer tituluk gaitzen duen administrazio publiko bat, kasu honetan Donostiako Udala, jabetza pribatuetan dauden elementuen ardura hartzera.

Aspaldi samar, galdetu genuen ea zergatik kontratatzen dituen Udalak elizetan dauden erlojuak mantentzeko lanak, eta erantzuna izan zen ez zekitela zehazki zergatia, ezta Udalak hori noiztik egiten duen ere, eta ez zekitela erloju horiek Udalak berak instalatu ote zituen elizetan, herritarrek halakorik ez zeukaten garaian, zerbitzu publiko moduan, edota Elizak berak eskatu ote zion Udalari erlojuak jartzea bere eraikinetan. Edonola izanik ere, badirudi egon litekeela akta edo agiriren bat, apezpikutzaren eta Udalaren artekoa, hori egitea justifikatu zuena.

JUSTIFICACIÓN

